

Kultura

Kontzertuek ematen duten esperientzia baliatuz,
Nevadah taldeak bere lehen diskoa kaleratu du >11



Asiar liztorraren kolonizazioa



Durangaldean asiar liztorraren presentzia nabarmena da. Bizkaiko suhiltzaileek intsektu honen 1.800 habia kendu zituzten iaz. Basalanek, aurtan, 2.600 erlauntz kendu ditu dagoeneko. > 6-7



Azokan, ikusleak parte-hartzaile

Bizitzekoa DA! lemagaz bete-betean asmatu dute, aurtan, Gere-diaga elkarteko kideek Durangoko Azokaren goiburua. Nerea Mujika elkartearen presidentek, balorazioa egiterakoan, azokako ikusleak parte-hartzaile bihurtu direla nabarmendu du. Datuei erreparatu gero, domeka eta martitzena izan dira egunik jendetsuenak. Barikuko Ikasleen Egunak izan duen indarra ere azpimarratu dute antolatzaileek. Guneetako arduradunak ere pozik agertu dira azokak izan duen erantzunagaz. ”. > 15

Leihoak

ALUMINIOA · PVC-A · MISTOA

Casimiro Astola kalea, 12 ABADIÑO
info@ventanas-durango - Tel.: 652 736 339
www.ventanas-durango.com

Durango > 2

Trafikoaren abiadura 30 km/h-ra baxatuko dute herrigunean

Elorrio > 3

Herri galdeketa maiatzaren 7an burutuko du Gure Esku Dagok

Otxandio > 5

Goi mailako aizkolarien lehia antolatu dute domekarako

Zaldibar > 8

Herriko merkataritza bultzatu guran, bonuak atera dituzte

Herririk herri

DURANGO Markel Onaindia Durango osoko trafikoaren abiadura 30 km/h-ra baxatzea erabaki du udalak, batez ere zebra-bideetan oinezkoekin gertatutako istripuen ostean –denbora bat beharko ei du ezarpenak, seinalizazio aldaketa eta abarrena-tik-. Gainera, Landako etorbideko argiztapena hobetuko dute, eta kontzientziazio kanpaina bat ere garatuko dute laster.

Aitziber Irigoras alkateak eta Pilar Ríos alkateordeak eman zituzten azalpenak joan zen astean, prentsaurreko bidez. Lehenik, istripuen biktimek izandako kaltea sentitzen dutela adierazi zuten. Azaroaren 12ra bitarteko datuak jasota, aurten 16 harrapaketa egon dira. Horietatik 12 desbisteengatik, eta gehienak telefonoa erabiltzeagatik gidatzeko unean.

Hiru aldiz gutxiago

Hainbat datu tekniko eman zituzten, azken urteetan istripuak bajatu direla arrazoitzeko. 148 semaforoak kendu zirenetik, istripuak hiru aldiz gutxitu direla esan zuten. 1990 eta 2003 artean, harrapaketen batez bestekoa 10,1ekoa zen 10.000 biztanleko;

Trafikoaren abiadura orduko 30 kilometrora baxatuko dute, istripuak murrizteko asmoz

Landako etorbideko argiztapena hobetu, eta kontzientziazio kanpaina bat burutuko du udalak



Gobernu taldeko kideak joan zen asteko prentsaurrekoaren ostean, San Agustinaldeko zebra-bide batean.

gaur egun 2,8koa da datu teknikoak. Peatonalizazioari, argiztapen urratsei eta bidegorriari esker, besteak beste, bizikleta-

ren erabilera 10 urtean %0,7tik %8ra igo dela diote. Neurriok azken 20 urteetan garatutako bide bati lotuta daudela dio udalak,

Alde Zaharraren peatonalizazioagaz hasi zena, eta mugikortasun jasagarriaren planagaz jarraitu zuena. Gaiak eztabaida

eragin du azkenaldian, eta herritarrei lasaitasuna eskatu die gobernuak.

EH Bilduk mozioa aurkeztu zuen osoko bilkuran –ez zen onartu–, istripuen eta puntu beltzen inguruko ikerketa bat eskatzeko. Gobernuak iragarritako neurrien harira, Ion Andoni del Amok galdetu zuen ea argiztapena zergatik hobetuko den Landakon bakarrik. Gainera, kontzientziazio kanpaina ziklistei bideratutakoa dela-eta, auto gidarientzat beharrezkoago ikusten du. Herriaren Eskubideako Jorge Varela adierazi zuen arazoa ez dela argiztapen falta bakarrik; kontainerrak, landareak edota aparkalekuak ere traba izaten direla esan zuen. Fran Garatek (PP) uste du istripuei buruzko datuak kezkarriak direla, baina udaletik neurriak hartu direla.

Baserritarren azokaren leku falta kritikatu dute

Andra Marian ipini zuten azoka joan zen zapatuan

DURANGO M.O.

Zapaturu merkatu plazan antolatzen da baserritarren azoka, baina artisauen azoka dela-eta, baserritarrek lekurik barik geratu ziren joan zen zapatuan. Gainera, Andra Maria ere orotariko postuez bete zen. EH Bilduk azaldu du, azkenean Andra Marian leku bat lortu zutela euren bitartekaritzagaz, parrokoagaz berba egin ostean.

Koalizioak prentsa oharra zabaldu du gobernu taldearen

(EAJ-PSE) jarrera salatzeke asmoz. Euren arabera, ez dute kontuan hartu baserritarren egoera, eta soluziorik topatzeko asmorik ez dutela eduki esan dute. “Gobernu Taldeak herriko komertzioari dion begirune ezaren beste adibide bat da gertaera hau”, azaldu du EH Bilduk. Landako Gunean antolatzen diren *outlet*-ak ere horretarako adibide ipini ditu koalizioak. Udalak *outlet* horien kopurua zaintzeko asmoa agertu du.

Jostailu bilketa egingo dute Durangon

DURANGO M.O.

Durango Udalak, JAEDek eta Caritasek jostailuak batuko dituzte beharra duten familiei laguntzeko. Hilaren 22ra bitartean utzi ahalko dira, Landako kiroldegiko sotoetan, 16:00etatik 21:00etara. Gainera, Podemos Durangaldeak eta Herriaren Eskubideak ere antzeko ekintza egingo dute. 13an eta 15ean batuko dituzte jostailuak, Untzillatx kaleko 15. zenbakian. Berriz 16an egongo dira, eta Abadiñon beste elkar-teen bilketan lagunduko dute.

EHEk aurrera begirako proposamena dakar

Gogoeta prozesuko ondorioa aurkeztuko dute

DURANGO M.O.

Euskal Herrian Euskaraz eragileak aurrera begirako proposamena aurkeztuko du hilaren 16an. Nazio mailan, herririk herri gogoeta prozesu bat burutu dute EHEko kideek, eta horren ondorio lez, dokumentu bat landu dute. Horren berri eman go dute hurrengo barikuan, 18:00etan, Pinondo Etxean egingo duten aurkezpenean.

Gogoeta prozesuan eragileko kideek, kide ohiek eta herrieta-

ko hainbat euskaltzalek parte hartu dute, eta proposamena horien guztien aurrean aurkeztu gura dute.

Dokumentua, eskura

Bestalde, dokumentua Plateruean eta Intxaurren ere egongo da eskura, baita durango@euskalherrianeuskaraz.org helbidetan eskatuta ere.

Ekarpenak egin gura dituenak urtarilaren 9ra arteko epea edukiko du.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2016ko abenduaren 9a
14. urtea - 657. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza eta Nagore
Txintxurreta Isasi.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
eta Maialen Zuazubiskar
Gallastegi.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek
Bizkaiko Foru
Aldundiaren
laguntza jaso du



100 lagunetik gora aurrekontu prozesuan

Besteak beste, “iraganeko arazo urbanistikoei” aurre egiteko ideiak ondu dituztela esan dute



2017rako udal aurrekonturako ideiak proposatu dituzte herritarrek.

ELORRIO M.O. Elorrioko 2017rako aurrekontuen partaidetza prozesuan 100 lagunek baino gehiagok parte hartu dute. Zuzeneko partaidetzez gainera, 170 galdetegi inguru jaso dituzte udalean. Besteak beste, “iraganeko arazo urbanistikoei” aurre egiteko ideiak ondu dituzte, prentsa oharrean adierazi dutenez.

Izan ere, Belengua kalea urbanizatzea eta Ibarako espaloia eraberritzea izan dira prozesutik ateratako ondorio nagusietakoak. Osoko bilkuran onartuz gero, errealitate

bihurtuko dira. “Urte askoan ahaztuta izan diren herriko hainbat gune eraberritzeko konpromisoa daukagu, eta Ibarra ingurua eta Belengua kaleko urbanizazioa udalak aspaldian jaso dituen eskaerak dira”, esan du Idoia Buruaga alkateak (EH Bildu).

Sektore ugaritakoak

Parte hartu dutenek emandako ideiek, orokorrean, udalaren lehentasunak berretsi dituztela azaldu du Buruagak. Sektore eta profil ugaritako jendeak eman du iritzia.

Herri galdeketa maiatzaren 7an burutuko du Gure Esku Dagok

50 bat herritarren aurrean aurkezpen publikoa egin zuen joan zen egunean

ELORRIO Markel Onaindia Maiatzaren 7rako iragarri du herri galdeketa Elorrioko Gure Esku Dagok. Joan zen egunean aurkezpena egin zuten 50 bat herritarren aurrean, galdeketa eguna eta horretarako prozesua azaltzeko.

Batzorde sustatzaile bat sortuko dute, dagoeneko lanean daudenez gainera, “dinamika aberasteko asmoz”. Urtarrilean aurkeztu gura dute lan-taldeka funtzionatuko duen batzorde hori, eta sinadura bilketa batez gaz hasiko dira. Gero, hile bira

aurkezpen handi bat egitea dute helburu, herritar askogaz.

Udalak ezin du, legez, galdeketa eskurik hartu, baina Gure

Batzorde sustatzaile bat sortuko dute, dagoeneko lanean daudenez gainera, “dinamika aberasteko asmoz”

Esku Dagokoak alderdiekin batu dira, Ima Eguen kideak azaldu duenez. “Hiru alderdien

babesa daukagu, EH Bildu, EAJ eta Herriaren Eskubidearena. Elorrioren emaitza onak eduki ditzakegula uste dugu, baina baina izan ahal dira alderdiek euren oinarriak hauspotzen badituzte”, esan du Eguenek.

Durangon ere bai

Durungaldean beste hainbat herritan ere badabilta lanean erabakitze eskubidearen aldeko mugimendukoak. Galdeketa egiteari atea zabaltu diote, eta Durangon ipinia dute hitzordua, maiatzaren 21a.



Gure Esku Dagoko zenbait kide, iaz, Joste Egunerako deia egiten. Lehiar Elorriaga

Botikak batuko dituzte Venezuelako Caripe herri indigenara bidaltzeko

Iñigo Muruaren nahia proiektu bihurtu da, eta bilketa bat garatuko dute

ELORRIO M.O. Iñigo Murua elorriarra Venezuelan bizi da, eta Chaima herri indigenaren barruan dagoen

Caripe herrirako hainbat sendagai zein osasunerako produktuak bidali gura ditu. Nahi hori proiektu bihurtu da Elorrioren,

eta udalak eta Larrañaga-Balenciaga eta Jaio-Olabarrieta farmaziek lagunduko dute bilketaren kanpaina.

Botikak farmazia bi horietan, udaleko beheko solairuan eta Caritasen lokalean –hemen, astelehen arratsalde soilik– utzi ahalko dira, abenduaren 22ra arte. Azaldu dutenez, heste-zizaretarako, zorrientzako, sarnarako eta hesteen minerako sendagaiak behar dira, besteak beste, baina konpresak edota pardelak ere jasoko dituzte.

Elkartasun ekintzak

Idoia Buruaga alkateak esan du Elorrioren elkartasunean oinarritzen diren hainbat ekintza garatzen direla, Kainaberaren kasu. “Iñigok antolatu duen ekimen hau ere guztiz txalotzekoa da”, adierazi du alkateak.



Venezuelako indigenentzat izango dira batutako botikak

ibaizabal **DOAKO IKASTAROAK**
2016-2017 IKASTURTEKO IKASTAROEN ESKAINTZA

PROFESIONALITASUN ZIURTAGIRIA		
Lan orientazioa eta Lanbide Heziketako enpleguaren kalitatea sustatzea	30 ordu	2016/12/21
Gatazken prebentzioa	70 ordu	2016/12/22
Enplegurako prestakuntza-ekintzen programazio teknikoak	60 ordu	2017/01/24
Ur eremu naturaleko sorospena	180 ordu	2017/02/20

ESKAINTZA IREKIA

Hezkuntzarako google tresnak eta web aplikazioak	20 ordu	2017/01/11
Psikomotrizitatea nagusientzat	20 ordu	2017/01/12

INFORMAZIOA eta IZENA EMATEA
 Tel.: 94 621 58 77 · ikastaroak@ibaizabalikastola.eus
 www.ibaizabalikastola.eus



Tabirako Errota ostatuan alokatu ditu gelak Amankomunazgoak.

Neguko aterpea zabalik dago, etxebakoei lo-lekua eskaintzeko

Iaz 148 pertsonak erabili zuten zerbitzua; 2014agaz alderatuta, %23 gehiago

DURANGALDEA A.E./M.O. Etorri dira neguko hotzak, eta sasoi zaila da etxe barik kalean lo egiten dutenentzat. Eurei lo-leku bat eskaintzeko, neguko aterpea zabaldu du Amankomunazgoak Errota ostatuan, eta martxoaren 31ra arte egongo da martxan. Egitasmoak bosgarren urtea bete du aurten.

Lo-lekuaz aparte, garbitasun zerbitzua, gosaria eta afaria emango dizkiete. Erabiltzaileek

hiru gau pasatu ahalko dituzte jarraian, eta gizarte zerbitzuetan erabakiko dute egonaldia luzatzea baimendu ala ez. Iaz 148 pertsonak erabili zuten aterpea, 2014ko neguan baino %23 gehiago.

Programa eta ikastaroak Bestalde, Amankomunazgoko bestelako zerbitzuetan nobedadeak daude. Enplegu arloan, Hazilan programa garatzen da-

biltza Behargintzaren eskutik. Durangaldeko 13 gazte lan munduan sartu ahal izateko prestaketan oinarritzen da. Biologia, kazetaritza edota fisika arloetan dabilta, besteak beste.

Horrez aparte, familiei elikadura ohiturak hobetzen laguntzeko egitasmoan izena emateko deia egin dute, www.mdurango.org webgunean. Guraso eskolan parte hartzeko inskripzioa ere egin daiteke, hilaren 23ra arte.

Organikoa birziklatzen hasiko dira Garain

Kontainer marroia ipiniko dute, bosgarrena

GARAI M.O. Amankomunazgoak bultzatuta, hondakin organikoa birziklatzen hasiko dira Garain. Durangaldean 2014an hasi ziren egitasmoa zabaltzen, eta dagoeneko amankomunazgoko bilketa zerbitzua daukaten herri guztietara ailegatu da. Izan ere, Garaigaz batera, Mañaria eta Izurtza ere batu dira proiektura. Gaur egun, guztira, 1.679 familia

dabilta organikoa gaika birziklatzen. Kontainer marroian botatzea edota autokonpostajea dira aukerak.

Egitasmoan parte hartu gura dutenek 94 623 25 22 telefono zenbakian eman dezakete izena.

Edukiontzari marroiaren sisteman parte hartzeko, hainbat material banatuko dituzte antolatzaileek: ontzi bat, poltsa konpostagarriak, kaleko kon-

tainerra zabaltzeko giltza eta informazioa. Etxeko ontzian hurrengo gaiak bota ahalko dira: kozinaturiko eta kozinatu gabeko lekaleak, frutak, barazkiak, pasta, landare hondarrak, fruten hezurak, papera eta paperezko ahozapi zikinak, besteak beste.

Lorategiak edo baratzeak dituzten etxeetan, autokonpostajea sustatuko dute. Konpost-ontzi bat, aireztargailu bat eta konposta nola egin azaltzen duen esku-liburu bat jasoko dute partaideek. Gainera, beharrezkoa izango da prestakuntza saio batera joatea; garaitarrek abenduaren 19an edukiko dute aukera, 19:00etan, udaletxean.

Interneten seguru nabigatzen ikasteko tailerra

MALLABIA J.G.

Mallabiko Udalak, gabonetako egitarauaren barruan, teknologia berriei buruzko ikastaroa jarriko du martxan. Abenduaren 16an, 18:00etan, Kontzejuzarren jarri dute hitzordua. *Interneten erabilpen seguru eta arduratsua* izenburua jarri diote teknologia berrien inguruko tailerrari. Izan ere, internetek hainbat esparrutan

‘Interneten erabilpen seguru eta arduratsua’ ikastaroa abenduaren 16an izango da

aukera asko eskaintzen dituen arren, baditu bere mehatxu eta arriskuak ere. Batez ere, arrisku horien inguruan jardungo du gaian aditua den profesional batek.

4.700 bisitari jaso dituzte Hontza museoan

MAÑARIA M.O.

Urte bi bete berri dira Hontza natur zientzien museo zabaldu zutenetik, eta dagoeneko, tarte horretan, 4.700 lagunek

Hain zuzen ere, 2017an beteko dira 30 urte museo lehengoz zabaldu zutenetik

bisitatu dute, Enrike Huerta presidenteak emandako datuaren arabera. 2014ko azaroaren 24tik hona zientziak leku berezia dauka Mañarian, eta inguruko askoren erreferentzia bihurtu da. Ikastetxeetako ume eta gazteentzat ere zabaltzen dute, gainera.

Eta honen aurretik hainbat urtez martxan eduki zuten museo. Hain zuzen ere, 2017an beteko dira 30 urte museo lehengoz zabaldu zutenetik.

Eguraldia lagun, azoka jendetsua egin dute

IZURTZA J.Derteano

Martitzenean, San Nikolas egunean, Gaztardogi azoka egin zuten Izurtzako pilotalekuan. Eguraldia lagun, jende asko joan zen azokara, eta udalak balorazio ona egin du.

Herriko dantzariak saioa eskaini zuten goizean, eta azokak iraun zuen bitartean trikitilariak musikaz alaitu zuten plaza ingurua. Jaietako argazki lehiaketako argazkien erakusketa ere ikusgai egon zen.



Martitzeneko azokako irudia Izurtzako pilotalekuan.

Abenduaren 15ean
osteguna, 19:00etan

"BIDAIA KOADERNOAK. HAZIEI BURUZKO PASARTE ETA OHAR HISTORIKOAK" LIBURUAREN AURKEZPENA
MARC BADAL IDAZLEAREN ESKUTIK

hitz artekalea, 23 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#aurkezpena

BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

Eraikuntzarako materiala
MACOBER
Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

Goi mailako aizkolarien lehia antolatu dute domekako azokan

Urrezko Aizkora Kopako finalerdi bat Otxandioko plazan jokatu dute

OTXANDIO J.Derteano.

Kementsu elkarteak baserriko eta artisautzako produktuen azoka antolatuko du domeka honetan. Azokaren harira, goi mailako herri kirol eskaintza ere prestatuko dute, Urrezko Aizkora Kopako finalerdia, esaterako.

12:30etik aurrera, Joseba Otaegi zizurkildarrak eta Iñaki Azurmendi arriarandarrak kanaerdiko hamabi enbor ebaki beharko dituzte. Irabazlea Gabonzahar egunez Asteasun jokatu den finalera sailkatuko da. Euskal Herriko txapel-dunordea den Otaegi da finale-ra sailkatzeko faborito, baina apustuak pare-parean daude.

Aizkolarien aurretik, 12:00etan, Gabonetako Harri-jasotzaile Kopako finalerdia jokatu dute Jokin Eizmendi zaraiztarrek eta Hodei Iruretagoiena *Izeta IVa* aiarrak. 150 kiloko laukizuzena, 113 kiloko kubikoa eta 100 kiloko borobila-gaz minutu biko saioak egingo dituzte.

Azokari dagokionez, mota guztietako 45 postu (gazta, ortuariak, eztiak, pateak, txerrikiak, pastelak...) jarriko dituzte plazan goiz osoan zehar. Taloagaz egindako ogitartekoak

jateko aukera ere egongo da. Horrez gainera, aurten umeei zuzenduriko tailer batzuk egingo dituzte, baserriko produktuen balioak transmititzeko helburuagaz.



Iñaki Azurmendi Euskal Herriko txapelketan. Gerardo Bengoa

Urkuzu ingurua garbitu dute auzolanaren bidez

Etorkizunean kultur etxea egin gura dute bertan



Urkuzu baserri aurrea garbi, eta alboan sastrakak batuta.

ATXONDO J.Derteano

Martitzenean auzolanaren aritu ziren Urkuzun, udalak deituta. Baserria sastrakaz inguraturik zegoen, eta sei lagunen artean horiek ebaki eta multzo bitan batu zituzten.

Udalak 2008 inguruan erosi zuen baserri hori, eta etorkizunean kultur etxe moduan ego-kitzea da helburua. Eskolatik zein Apatako erdigunetik gertu, kultur etxe baterako kokapen

aproposa dutela uste dute udal arduradunek.

Asmoa errealitate bihurtzeko baliabide ekonomikoak izan artean, bestelako lan batzuk burutzen ari dira. Esaterako, udalak enpresa bat kontratatu du teilatuan konponketa lan batzuk egiteko, Dabid Cobos alkatearen esanetan. Izan ere, euria egiten duenean itoginak daude, eta urak barrualdea kaltetzen du.

ERNE

“SD EIBAR” BIRUSA HEDATZEN ARI DA...

EIBARRERA ABONATU

Eta **PRIMERAKO AFIZIO BAT** kutsatu

Informatu zaitez: www.sdeibar.com/abonatuak edo 943 201 831

SDEIBAR

kutsatuzureafizioa



Asiar liztorrak Durangaldea kolonizatu du

Bizkaiko suhiltzaileek asiar liztorraren 1.800 habia kendu zituzten iaz; Bizkaiko Foru Aldundiak Basalan enpresari esleitu dio lan hori aurten, eta dagoeneko 2.600 habia kendu dituzte Bizkaia osoan



Iñigo Mendibil
Suhiltzailea eta erlezaina
ATXONDO

ERREPORTAJEA J. Guenetxea
Landako eskolako arbolan, Zornotzako pilotalekuan, Zaldibarko ospitale psikiatrikoko arbola batean... asiar liztorrak nonahi sortzen du bere erlauntza. Zelulozazko egitura perfektu horiek erreka inguruetan, leku heze eta epeletan eraikitzen dituzte, batez ere.

Asiar liztorraren zabalkundea etenbakoa da European. Duela hamaika urte itsasontziren batean Asiatik Bordelera (Frantzia) heldu zenetik, urtean 50 kilometroko hedadura konkistatzen du. Kantauri isurialdea hartuta du, baita Galizia eta Portugal ere. Orain Katalunian hedatzen ari da. Durangaldean nabarmena da asiar liztorraren presentzia.

Iñigo Mendibil atxondarra suhiltzailea da Markinako parkean. Erlezaina izanda, asiar liztorraren inguruan interes berezia izan du. Mendibilek azaldu duenez, azken hiru urte hauetako esperientziak oso ezberdinak izan dira. “Orain

bi urte bagenekien Gipuzkoan arazo hau zutela, baina guk ez geneukan baliabiderik horri aurre egiteko. Iaz formakuntza jasotzen ibili ginen. Hala ere, baliabideak irailean heldu ziren, eta ordurako liztorra topera zegoen”, adierazi du. Aurten, Bizkaiko Foru Aldundiak Basalan enpresari esleitu dio asiar liztorraren habiak kentzeko ardura. Horrek suhiltzaileen lana arindu duen arren, habiaren bat leku arriskutsuren batean badago beraiek joaten direla azpimarratu du atxondarrak.

2015ean Bizkaiko suhiltzaileek 1.800 habia kendu zituzten. Aurten, berriz, 300. 2016an, Bizkaiko Foru Aldundiaren protokoloagaz, Basalan enpresak 2.600 habia kendu ditu. Udalek ere bat egin dute ekimenagaz. Beraz, inguruan asiar liztorraren habia ikusiz gero, herritarrek dagokien udalera jo behar dute jakinarazpena egitera. Izan ere, udalak dira Basalanen eta herritarren arteko bitartekaria. Suhiltzaileek

bi irteera egiten dituzte habia bakoitzeko. Lehenengoan, non dagoen ikusi eta kentzeko modua zehazten dute. Bigarrenean, berriz, kendu egiten dute. “Ezinezkoa zen suhiltzaileon zerbitzua, hiru hilabeteetan, liztorretara 3.600 irteera egitera bideratzea. Gertatu zaigu habia kentzen ibili eta unitate horretarako beste dei bat izatea. Ikusi genuen hori ez zela eraginkorra”, gaineratu du Mendibilek.

Bertako liztorra bereizten
Bizkaiko Foru Aldundiaren protokoloa dela-eta, udaleko langileek formazioa jaso dute. Sarritan bertako liztor europarra (vespa crabro) Asiako liztorragaz (vespa velutina) nahasten dute askok. Orain udal langileak dira asiar liztorraren habia dela baieztatzera joaten direnak, eta erlauntzaren kokapenaren arabera, Basalanera edo suhiltzaileetara deitzen dute.

Suhiltzaileen barruan taldea sortu zuten kolektibo guztiari

anboto.org
MUGIKORREAN

Albisteak eta agenda,
bizkor eta eskura.

Telefono gida osatuena:
zuzenean deitzeko aukera.

Parte hartu, galderak eginez,
erantzunak lortuz.

Pertsonalizatu, zure herria aukeratzuz.

**DESKARGATU
DOAN !**



Durangaldeko Baserritarren Elkarte



Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

formakuntza emateko. Habiak ahalik eta modu eraginkor eta seguruenean kentzea da helburua. Habia eskura badago, iluntzean joan, plastikozko poltsa batean batu, eta liztor guztiak barruan daudela kendu egiten dute. Pozoirik barik dauden kasuetan, erlauntza horiek EHUKo ikerlarietara pasatzen dizkiete. Aldiz, arbola isolatuta badago, habia erre egiten dute. Hirugarren modua pozoia erabiltzea da. “Pozoia erabiltzea errezena bada ere, azken aukera da, kutxagarria baita”, dio suhiltzaileak.

Bertako erleei kalte

Asiar liztorren ziztadek alarma soziala piztu duten arren, erleen pozoia liztorrena baino kaltegarriagoa dela dio atxondarrak. “Gertatzen dena da liztorrak pozoia kopuru handiagoa duela eta eztena luzeagoa duela; 7 milimetroko eztena dute, eta erleek 2koa”. Pertsonetara baino, bertako erleei eragin die asiar liztorrak kalterik handiena, baita fruitu ekoizleei ere. Liztorrak azukrea gustuko duenez, fruituan topatzen du gozotasun hori. “Berez kaltetuta zeuden erlezainei beste lan bat egitea tokatu zaie orain. Horregatik, habiak ikusiz gero, garrantzitsua da abisatzea eta kentzea, horrela eginda, kopurua asko jaisten dela ikusten delako”, nabarmendu du Mendibilek.

Liztorra gozozale

Liztorraren gustuak baliatuz, erlezainek tranpak jartzen dizkiete. Negura orduko, botila berezietan fruituzko zukuak jartzen dizkiete bertara sartu daitezen. Udaberrian, aldiz, garagardo iluna, ahabia-zukua eta ardo zuri pixka bat jartzen dute. “Erleak alkoholera ez doazenez, ardoagaz tranpa horretara erleak ez sartzea bermatzen da”, dio suhiltzaileak. Tranpetara, liztorraz gain, tximeletak, erleak eta beste intsektu batzuk sartu ohi dira. “Jarraipena egin behar zaie, ikusteko *velutinak* direla sartzen direnak”, gogorarazi du Mendibilek.

Liztorra 600 metrotik behera, erreka inguruan eta leku epeletan gelditzen da. Beraien ziklo biologikoa urtebetekoa izaten da. Negurantz, arrak eta erregina izango diren emeak hazten dituzte. Habia batzuk zintzilik gelditu diren arren, erreginak hasi dira dagoeneko lekua topatzen, lurpean edo egur artean, pare bat hilabete negua pasatzeko. Otsailean hasiko dira kanpora irteten. Hilabete bi barru ikusiko ditugunak *velutina* erreginak izango dira, lehenengo habiak egiten.

“Iaz erlauntzen %40 galdu nuen; hori edonori kontatu, eta ez du sinesten zelan jarraitzen dugun”

Valentin Llonak 35 urte daramatza ezti ekoizten. Bizkaiko zazpi tokitan 250-300 erlauntz artean ditu, tartean Zornotzako Epaltzan eta Montorran. Asiako liztorrak ezti ekoizleei kalte handia eragiten diela azaldu du.

Asiako liztorra noiz hasi zitzaizuen kalteak eragiten?

Frantziara orain bederatzi bat urte heldu zen, beraz jakitun geunden. Gipuzkoara orain bost bat urte heldu zen, eta Bizkaira orain hiru urte. Beraz, ikusten zen zer etorriko zen. Iazko urtea oso gogorra izan zen, asko handitu zen Asiako liztorren kopurua, eta benetako arazoak orduantxe izan genituen. Zornotza ingurukoa ikaragarria izan zen.

Zelako galerak izan zenituen?

Erlauntzen %40 galdu nuen gutxi gorabehera. Hori edonori kontatu, eta ez du sinesten zelan jarraitzen dugun. Hainbeste erlauntz galduta, erleen mundu honetan jarraitzeko gogoia kendu beharko litzaitzukeela pentsatzen dute, baina ez da horrela normalean. Nik beti esan dut erlezainok badugula zer edo zer berezia, zeren eta denetarik pairatzea egokitzen zaigu, eta, hala ere, aurrera egiten saiatzen gara. Mundu hau eta erleak maite behar dituzu.

Beraz, pasioa izan ezik gaur egun ez da posible mundu honetan aritzea.

Ez. Begira, eraman izan ditut erlauntz hutsak etxera, eta zabaltzerakoan 500 bat erle eta beste hainbeste liztor hilda aurkitu ditut. Liztorrak erlauntzera sartu dira eta egundoko borroka izan dute. Denak

hilda eta erlauntza hondatuta. Liztorrek erleek prestatutako ezti guztia jaten dute, erlauntza garbi uzten dute. Erleak eurak ere jaten dituzte.

Arazo horren aurrean, zer neurri hartu daitezke?

Tranpak jartzen ditugu erreginak zein liztor arruntak harrapatzeko. Tranpak bete egiten ziren, baina liztorrek berdin-berdin jarraitzen zuten. Beste modu batzuk ere badaude liztorrei aurka egiteko, baina lan handia eskatzen dute.

Tranpak jartzeko, zein da une egokia?

Udazkenean erreginak ernalduta irteten dira habietatik, 200 bat irteten daitezke. Negua ezkutatuta pasatzen dute eta apiril bueltan irteten dira urteroko prozesuari ekiteko. Tranpak orduan jarritz gero, erreginak harrapatu daitezke. Nik, iaz, 2.380 erregina harrapatu nituen. Zenbatu nituelako diot. Habia bakoitzak, demagun, 3.000 liztor inguru izaten baditu... atera kontuak.

Honek guztiak zelan eragiten du eztiaren ekoizpenean?

Asko jaisten da, jakina. Ekoizpenean beste faktore batzuk ere badaude. Gure ingurua ez da ekoizpen askorako gunea, pinu asko dagoelako. Eguraldiak ere zerikusia du, eta negua goizago edo geroago sartzeak loraldiei eragiten die. Guk transhumantzia egiten dugu, Burgos iparraldera. Han oraindik ez dago Asiako liztorrik. Zeozer heldu da, baina ez da hemengoa. Erlauntzen %80 eramaten dugu hara. Kopuru hori da eraman dezakegun gehiena,



Valentin Llonak Gorritxategi
Erlezaina
ZORNOTZA

ingurumen arloko eskakizunengatik. Urri ingurura arte izaten ditugu han.

Erakundeek zer egin dezakete honen aurrean?

Erakundeak badabiltza lanean, baina ez guk behar dugun abiaduran. Gero, udalekoak eta Aldundikoak ibiltzen dira hara eta hona habiak kentzen, baina ez dira denera heltzen. Norberak kendu behar izaten ditu.



Arantza Royuela
Erlezaina
ELORRIO

“Askoz ere lan gehiago ematen du liztorrak erleak baino, eta garestia da guretzat”

Zure lanetik kanpo, afizioz zara erlezain. Noiztik?

Txikitatik eduki dut erleenganako afizio hori, baina orain urte bi arte ez nintzen hasi. Lekeition bazegoen gizon bat erlauntzak kendu behar zituena, eta neuk hartzea erabaki nuen. Madrilen egon nintzen, for-

mazio batean, eta hemen ere ikasi dut. Aizazu eta Berrio auzoetan hamar erlauntz dauzkat, eta bakoitzean 30.000 erle egoten dira. Euskal Herria, eta Elorrio ere, ez dira onak erleentzat; basamortu berdea esaten zaio. Izan ere, dena da pinua, ez dago lorerik. Gainera, Elorrioren erlezain gehiago daude, eta pentsatu behar duzu zenbat erle mantendu daitekeen leku berean. Landu barik dauden lurak dira hemen onenak, otea edo arantza dauden lekuak.

Zelako produkzioa daukazu?

Erlauntz bakoitzetik 12-15 kilo ezti ateratzen ditut urtean; oso urte ona bada, agian 24. Ezti ingurukoaren artean banatzen dut, eta propolia ere bai. Propolia erretxin moduko bat da, antiseptiko bat. Habian edozein zulo dutela, horregaz estaltzen dute. Barrura intsekturen bat edo sugelandararen bat sartu eta ezin badute kanpora atera, hil egiten dute, eta gero gainetik baltsamatu propoliagaz, habian bertan useldu ez dadin.

Zelan igarri duzu asiar liztorraren etorrera?

Ni hasi eta liztorrak etortzea bat izan zen. Askoz ere lan gehiago ematen du liztorrak erleak baino, eta garestia da guretzat. Administrazioetik, kanpora begira

gauza ikusgarriak egiten dituzte liztorra kentzeko, baina benetako eragina eduki dezakeena ez dute egiten. Erlezaintzan lau katu gara. Nire ustez, Errioxara heltzen denean hasiko dira neurriak hartzen, liztorra mahats guztia jaten hasten denean. Baina sarritan ez da bakarrik dirua ipintzea.

Zelan egiten diezu aurre?

Erlea da euren proteinarik gustukoena. Orduan, helikopteroen moduan egoten dira erlauntzen parean, geldi-geldirik, erle bat noiz etorriko. Unean bertan, burua kendu eta habiara eramaten dute. Guk, harrapatzean, hankak kentzen dizkiegu, eta pozoia besteei pasatzen diete. Beraz, asko hiltzen dira. Metodo ona da, eta nik aurten asko igarri dut; *Troiako Zaldia* deitzen zaio.

Elorrioko institutuko ikasleekin tailer bat garatu zenuen iaz.

Informazioa eman, eta tranpak lantzeko tailerra egin genuen. Astean behin joaten hasi ginen, tranpak likidoz betetzen, jausitako liztorrak zenbatzen... Beste tailer bat egiteko deitu didate, eta erlezaintza ikastaro bat ere eman gura dut ikasleekin.

Aldagela berriak eta handiagoak izango ditu Ganeko igerilekuak

2017ko inbertsio nagusietako bat igerilekuen azpiegiturretan egingo dute



Ganeko igerileku biak eta gaur egun dauden aldagelak.

ZORNOTZA Joseba Derteano Ganeko igerilekuek aldagela berriekin irekiko dituzte ateak 2017ko udan. Datorren urteko aurrekontuetako inbertsio nagusienetakoa azpiegitura horiek berritzera bideratuko du udalak: 405.000 euro izango dira guztira. Musika eskolaren eta bidegorri sarearen atzetik, hiru garren diru atalik handiena hartzen duen proiektua izango da.

Ganeko azpiegiturak 30 bat urte dituzte, eta “batez ere, aldagelak oso zaharrituta daude”, onartu du Andoni Agirrebeitia alkateak. Horregatik, orain aldagelak dauden eraikina bota eta berri bat egingo dute. Aldagela “modernagoak eta ingurumenarekiko iraunkorragoak” izango direla gaineratu du. Tamaina aldetik ere gaur egungoak baino handiagoak izango direla aurreratu du alkateak.

Lan horiekin batera, udako erabiltzaileek eserita edo etzanda egoteko erabiltzen duten igerileku ondoko belardia ere

txukuntzeko eta atontzeko asmoa dute. Igerileku biak orain dauden moduan geratuko dira. Proiektu honen bidez, azpiegitura horietako beharrian nagusienak estaliko dituztela uste dute, eta, hasiera batean, ez dute beste inbertsiorik aurreikusten legegintzaldi honetan.

Lan horiekin batera, igerileku ondoko belardia ere txukuntzeko eta atontzeko asmoa dute

Martxoan, hasiera

Lanak “prozedura administratiboak ahalbidetzen duen bezain laster” hasiko dituztela esan du alkateak. Seguruenik, martxoan zehar ekiteko moduan izango dira, eta ekainarako amaituta egon daitezke. Udako igerilekuen denboraldia ekain erdian hasten da, eta hiru hile irauten du, irail erdira arte.

Herriko merkataritza bultzatzeko, erosketa bonuak atera dituzte

Martxan da *Zaldibarren bizi*, *Zaldibarren erosi* izeneko kanpainaren bigarren edizioa

ZALDIBAR A.E.

Urtarrilaren 6ra arte, herritarrek bertako dendetan erostera bultzatu nahian, bonu bereziak atera dituzte udalak antolatutako kanpaina honetan. Hamar euro ordainduta, herriko dendetan hoge euroko balioa izango duten bonuak eskuratu ahaliko dituzte zaldibartarrek. Guztira, herritarrek, 700 bonu izango dituzte eskuragarri, bai udaletxean, bai KZgunean.

Kanpaina honek hamazortzi merkatariren babesa jaso du. Iazko arrakastaren ostean, aurtun, 200 bonu gehiago atera dituzte. Jende gehiagoren par-

taidetza bilatu nahian, biztanle bakoitzak bonu bakarra eskuratzeko aukera dauka kanpainaren bigarren edizio honetan.

Urte osoan herrian erosi

Arantza Baigorri Zaldibarko alkateak dioenez, “kalitatezko denda eta zerbitzuak ditugu, eta udalak horiek sustatzeko ardura duela uste dugu”. Horregatik, kanpaina hau bukatzean ere bertako merkataritza bultzatu gura dute. “Herritarrak urte osoan Zaldibarren erostera gonbidatu gura ditugu”, gaineratu du. Kanpaina honetara 7.500 euro bideratu dituzte.



Herriko merkataritza sustatzeko bonuak eskuragarri daude, urtarrilaren 6ra arte.

100.000 euro Berriz Susaren isuna ordaintzeko

2017an, 5.525.000 euroko aurrekontutik 549.000 euro inbertsioetarako izango ditu Berrizko Udalak



Margarita Maturanako etxeak.

BERRIZ M.Z.

2017rako 5.525.000 euroko udal aurrekontua onartu zuten pasa den astelehenean EAJko eta PSE-EEko zinegotzien aldeko botoekin. EH Bilduko lau zinegotziak, berriz, aurrekontuen kontra agertu ziren.

Datorren urterako, 2016an baino 126.000 euro gutxiago izango dituen udal aurrekontua onartu zuten Berrizen. 5.525.000 euro izango dituen aurrekontutik ia 100.000 euro Berriz Susa auzia dela eta udalak duen zorrari aurre egiteko erabiliko dituzte, eta 549.000 euro inbertsioetarako; horietatik 310.000 euro Iturritza- Learreta -Markina errepiderako erabiliko dituz-

tela jakinarazi zuten.

EH Bilduko kideak kritiko agertu ziren EAJk egindako aurrekontuekin. Koalizioak azaldu zuenez, “herriak ez du gutxi batzuen isuna ordaindu behar, herriak ez du horrelako tratuerik ezta aurrekonturik merezi”. Horrez gain, gobernu taldeari herritarren aurrean azalpenik eman ez izana leporatu zioten EH Bilduko kideek.

Orland Isoird alkateak, berriz, aurrekontuak hobetu daitezkeen arren, “aurrekontu duin batzuk” egin dituztela adierazi zuen, eta urtea bukatu baino lehen herritarren aurrean azalpenak emango dituztela jakinarazi zuen.

Abendu Koplak edo Marijesiak abestera joango dira Lekeitiora

IURRETA Aitziber Basauri

Iurreta izan zen iaz, eta aurtun, Lekeitio. Abendu Koplak edo Marijesiak abesten dituzten herrietako hainbat talde elkartuko dira, zapatuan, Lekeitioko Andra Mariaren Zeruratzearen basilikan. Iurreta eta Oromiñoko taldeek ere parte hartuko dute bertan; baita Mendiolako (Abadiño) taldeak ere.

Bederatzi taldek abestuko dituzte Abendu Koplak edo Marijesiak, zapatuan, 19:00etan. Ea, Ariatza (Muxi-

Bederatzi talde elkartuko dira, zapatuan, Abendu Koplak edo Marijesiak abesteko Lekeition

ka), Gauteigiz-Arteaga, Oromiño (Iurreta), Ibarrangelu, Mendiola (Abadiño), Iurreta, Lekeitio eta Gernika-Lumoko taldeek jardungo dute.

Abendu Koplak edo Marijesiak abesteko ohiturari eusten dioten herrietako koadrilak 2009an hasi ziren topaketak egiten, eta urtero abenduko bigarren zapatu iluntzean elkartzeko dira.

750.000 euro bideratuko ditu udalak bost inbertsio nagusitara

Abadiñoko Independentieek eta EAJk babestu dute 2017ko udal aurrekontua



Udaletxean igogailua ipintzeko diru-atal bat jasotzen du Abadiñoko 2017rako udal aurrekontuak.

ABADIÑO Itsaso Esteban 2017rako 9.245.082 euroko aurrekontua onartu zuen, azaroaren 29ko udalbatzarrean, Abadiñoko Udalak. Udal gobernuan dauden talde Independentieak eta EAJk onartu zuten proposamena, eta kontra bozkatu zuen EH Bilduk.

Bost dira Abadiñoko 2017ko udal aurrekontuak jasotzen dituen inbertsio nagusiak, eta, guztira, 749.947 euro bideratuko dituzte egitasmo horiek gauzatzera. Hiri Antolamendurako Plan Orokorra eta Gazteluako

saneamendua berriztea, udaletxean igogailu bat ipintzea, abadetxean udal bulego tekniko berriak atontzea eta nekazaritza garapena bultzatzea dira aurrekontuko inbertsiorik handienak. Gobernu taldeak azaldu duenez, bi lursailen salmentak ekarriko dio udalari inbertsio horiek burutzeko behar duen 700.000 euroko diru-sarrera.

Udal gobernuaren etxebizitza politikarekiko desadostasunak bultzatu du, besteak beste, EH Bildu kontra bozkatzera. Mikel Urrutiaren berbetan, “lu-

rren salmentatik diru-sarrerak lortzea aurrirakustez haratago, gobernu honek ez dauka ezelako proposamenik etxebizitza eskubidea gauzatzeko zailtasunak dituztenentzat”.

“Estrategikoak” deritzen udal batzordeen aurrekontuan %20ra arteko murrizketak egin dituzten bitartean, “politikariei bideraturiko diru-kopurua gehitu” egin dutela ere kritikatu du EH Bilduk. Independentieek eta EAJk koalizioa aurrekontuen lanketatik kanpo utzi dutela ere salatu du EH Bilduk.

Elkartasun asteburua antolatuko dute

ABADIÑO I.E. Gaur eta bihar, *Preso eta iheslariak Euskal Herrian aske* lemagaz, elkartasun asteburua ospatuko dute Abadiñon. Enkartelada, pintxo potea eta bertso saioa izango dira aukeran, gaur. Bihar, 12:00etan Muntzaratzetik abiatuko den kalejiragaz ekingo diote egitarauari. Probalekuan bazkaldu ostean, bingo musikala, ekitaldia, elektro txaranga, eta Txapito Guzman eta Ibarrako Langostinuek taldearen kontzertua izango da. Gaztetxean, Kohatu, Skovers eta Baske Street Boys taldeen kontzertuekin borobilduko dute biharkoa.

Diego Lope omenduko dute, bihar, frontoian

ABADIÑO I.E. Abenduaren 3an hil zen Diego Lope abadiñarra omentzeko ekitaldia egingo dute, bihar, 18:00etan, Traña-Matienako frontoian. Ezgaitasuna duten Durangaldeko gazteak eta beraien familiak biltzen dituen Geu Be elkartearen sorreratik izan zen Lope bertako partaide, eta haren elkartekide eta lagunak bilduko dira omenaldian.

SEI HANKAKO MAHAIA

ARITZ BRAVO
EH Bildu



Herriko komertzioaren defentsan

Baserritarrek ez daukate beraien asteroko merkatua egiteko baimenik, herriko merkatariak arduraturik daude LESAn egiten diren asteburuetako merkealdi azokak direla eta, Mercadona eta halako merkatari-tza-gune handiak eskualdera etortzeko mehatxua,...

Ez dira garai onak Durangon herriko betiko merkatariarentzat. Ez dira garai onak, eta PNV eta PSEren Udal Gobernu Taldeak ez diote babesik ematen kasik. Komertzio txikiaren alde daudela esan bai, baina egin, gauza gutxi egiten dute. Eta maiz egiten dena, alde baino, kontra.

Ez dira jabetzen, akaso, herriko komertzioa babestea denda baten edo beste baten alde egitea baino gehiago dela. Badagoela modua herri eredu bat defendatzeko, jasangarria eta gertukoa. Badagoela modua herriaren beraren biziraupena bermatzeko.

Ulertu behar da komertzio txikiaren alde eginez, herriko ekonomia dela bultzatzen duguna, eta ziurtatzen dugula aberastasuna herritik herriarentzat banatzea. Merkatari eta komertzio txikiaren laguntzaz sortzen da herri mailako sare ekonomikoa, eta horrek egiten du herriko egoera sozioekonomikoa hobetzea. Ekologikoki ere badira mila arrazoi komertzio txikiaren alde egiteko, jasangarriagoa baita zeharo.

Durangok, zerbitzu herri bat izanik, beharrezkoa du komertzio txiki sare indartsu bat, eta, nola ez, honetaz jabetu eta honen alde egingo duen Gobernu Talde bat. Hori dela eta, zapatuan gertatu bezala, beti hor egongo gara komertzio, kontsumo eredu honen alde lan egiteko, herritar ororekin batera, komertzio honen alde egitea herri guztiaren alde egitea baita.

DURANGALDEA ASTEON

EBren migrazio politika gaitzesteko deialdia

BERRIZ > Abenduaren 10a Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuz, Europar Batasunaren migrazio politika gaitzesteko deia egin dute Berrizen. *Ongi etorri errefuxiatuak eta Gerrarik ez!* lemak aldarrikatzeko manifestazioa egingo dute gaur, 12:00etan, Urtiaga plazatik hasi eta udaletxerainoko ibilbidea osatuz.

43 seinale ipini dituzte aparkalekuak iragartzeko

ZORNOTZA > Trafikoa gutxitzea, oinezkoen segurtasuna handitzea eta airearen kalitatea hobetzea helburu hartuta, ibilgailuak aparkalekuetara bideratzeko 43 seinale bertikal jarri dituzte Zornotzan. Aparkaleku bila egiten diren joan-etorriak gutxituz, auto kopurua murriztu gura dute herriaren erdigunean.

Pertsona nagusien inizatiba saritu dute

ELORRIO > Udalak eta Gaurko Nagusiak Fundazioak antolatzen duten pertsona nagusien inizatiba lehiaketako sariak banatu zituzten, joan zen barikuan. Bost lan aurkeztu dituzte 60 urtetik gorako herritarrek, eta Carlos Palacios eta Maria Asun Azkarateren *Elorrioko museo etnologikoa* egitasmoa izan da garailea.

IRITZIA

Zorionak, Barraskilore

Orain dala 3 urte, atxondar batzuk eraikin huts bat okupatu eben —urte batzuk lehenago eraikitzaile batek diruagaz alde egin eta bertan behera itxitakoa—, eta apurka-apurka eraikin hori bizilagunez betetzen joan da.

Etxebizitza eskubidea unibertetsala da, eta norberak erabakiko du eskubide hori lortzeko erabiliko daben tresna. Oso gitxi batzuek, euren maila sozialari esker, diru nahikoa edukiko dabe etxea erosteko; gehienek hipoteka bat eskatuko dabe eta bankuagaz ezkonduko dira eskubide hori bermatzeko; eta apur batzuek, beste bide batzuk dagozala sinestuta, lapur handien esku dagozan etxe hutsak okupatuko dabez. Lehenengo kasua argi dago, baina zein da desberdintasuna bigarren eta hirugarren kasuen artean? Bietan etxea bankuena da (zeurea dala sinestea guzur bat sinestea da), baina bigarren kasuan bankuari jaten emoten jako hipotekak ordaintzera-

koan, eta hirugarren kasuan bankuari desafioa egiten jako, sistema kapitalistaren aurkako jarrera aktiboagaz.

Hipoteka baten kaiolan kateatuta egoteak edonor estutzen du, baina ez da oso koherentea Berlin edoartzelona turismo “okupa” egitea, eta gero norberaren herrian dagoen etxe okupatua kritikatzea “horiek musutruk bizi gura daben aurpegi gogorak baino ez dira” esanda. Erraza da *desalojo* baten mehatxupear biziitzea, ala? Batzuentzat erosoagoa da hipoteka ordaintzea, eta kito. Bakoitzak bere bidea aukeratzeko eskubidea dauka, baina errespetatu daigun ondokoak aukeratutakoa.

Zorionak, Barraskilore! Eskerrik asko kateetatik aske bizi daitekeela gogoraraztearren. Aupa zuek!

Irantzu Zuazua Albarado

astekaria@anboto.org
astearte 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta •
Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOK ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

> Berbaz

Aitor Gonzalez Gato | 'La Muralla de la villa de Elorrio' liburua idatzi du | Portugalete, 1973

“Elorriok harresi oso indartsua zuen, Bermeo edo Urduñakoaren modukoa”

Don Tello Bizkaiko Jaunak aginduta eraikitako Elorrioko harresiaren inguruko liburua idatzi du

> BERBAZ Aitziber Basauri
'La Muralla de la villa de Elorrio' liburua kaleratu berri du Aitor Gonzalezek. Elorrioko harresia hiribildua babesteko eraiki zen, defentsarako funtzioa zuen eta, zentzu horretan, Bizkaiko esanguratsuenetarikoa zen, Bermeokoagaz eta Urduñakoagaz batera. Autofinantzatutako argitalpen honen 100 ale argitaratu ditu, eta Durangoko Hitz eta Urrike linburu-dendetan dago salgai. Elorrioko llogarri ere bai.

Zein izan zen Elorrioko harresiaren garrantzia?

1356an elorriarrak kexu ziren gipuzkoarrak Bizkaira bidelapurretak egitera, asasinatze... sartzen zirelako. Hori dela-eta, Elorrio hiribildu moduan osatu eta harresitu zezan eskatu zioten Don Tello Bizkaiko Jaunari —urtebete aurretik Markina ere sortu zuen berak—. Beraz, zentzu horretan, elorriarrentzat oso garrantzitsua izan zen harresia.

Babeserako funtzioa zuen?

Hala da, bai. Gainera, jakin badakigu metro bat eta hogeitimetrotako lodiera zuela. Are gehiago, 1468. urteaz geroztik, lodiera bi metro eta hogeitimetrorara gehitu zen; bikoiztu egin zen. Lodiera nabarmena zuen harresiak.

Hala ere, hasiera batean, egurrezkoa zen harresia.

Bai. Babesa eraikitzea presazkoa zenez, Bizkaiko Jaunak hamar hilabeteko epea eman zuen berez egurrezko hesia izango zena eraikitzeko. Baina, gerora, harrizko harresi edo hesi batengatik aldatuz joan zen.

Oro har, harresi guztiek zuten defentsarako funtzioa? Zen-

tzu horretan berezia al da Elorriokoa?


Oinarrian, harresi guztiek zuten babesteko funtzio hori. Hala ere, batzuek beste batzuek baino gehiago. Prestigioaren adierazgarri moduan ere altxatzen ziren harresiak, eta disuasio-funtzio bat ere betetzen zuten. Bizkaiko harresirik gehienak ahulak ziren; al-diz, Elorriok harresi oso indartsua zuen, Bermeokoaren edo Urduñakoaren modukoa. Hiru hauek, hain justu, defentsarako funtzioa izan zezaten eraiki ziren. Alde horretatik, Bizkaiko esanguratsuenak dira horiek.

Orain ikusi daitezke Elorrioko harresiaren aztarnak.

Harresiaren bi ate mantentzen dira gaur egun: Kanpo aldeko Atea —Arespakotxaga Jauregiari atxikita dago— eta Ibaiko Atea —Inurrieta kalearen bukaeran dagoena, ibaiaren alboan—; azken hori ataka txiki bat zen, oso baxua, txikia. Kanpo aldeko Atea, berriz, ederra da gaur egun ere. Sei metroko altuera eta lau metroko zabalera ditu. Ezkutu bat ere badu. Ate ederra da, eta aipatu behar da ia-ia eraitsi egin zutela 1905ean. Elorrioko harresiaren gainontzeko lau ateak XIX. mendean eraitsi zituzten. Harresiak zaharkituta zeudela, ezertarako ez ziren ustea oso zabaldua zegoen Europa guztian, eta makina bat harresi bota zituzten ezjakintasunarengatik. Elorrio ez zen salbuespena izan. 1829an bota zuten bat, eta beste hirurak 1869an.

Elorrioren sute handia gertatu zen XV. mendean. Nola eragin zuen horrek harresian?

1480an izan zen sutea, eta hiribilduaren heren bat erre zen. Horrexegatik falta da etxebi-



Yusti Ferreira

“*Harresiaren bi ate mantentzen dira gaur egun: Kanpo aldeko Atea eta Ibaiko Atea*”

zitza etxadi bat gaur egun ere. Harresian ere eragin zuen. 1992an indusketa arkeologiko batzuk egin ziren, eta kiskalitako harriaren aztarnak aurkitu zituzten; sute haren hondarrak direla uste dute.

Zergatik Elorrioko harresia?

Beraien harresien aztarnak mantentzen dituzten hiribilduei buruzko argitalpenak egin ditut nik. Hau zazpigarrena da. Zergatik? Informazioa jasotzeaz gainera, bertara joateko aukera du irakurleak, eta ikusi zertaz ari naizen. Elorriok harresiaren bi ate mantentzen ditu, eta, horrez gainera, zenbait etxetako fatxadetan harresiaren zati diren hainbat aztarna ikusi daitezke. Etxe gu-

txi dira, aztarna gutxi dira, baina hor daude.

laz Portugaleteko harresia-ri buruzko argitalpena kalera-tu zenuen. Elorriokoa eta hura oso desberdinak dira?

Guztiz. Portugaletekoak, batez ere, disuasio-funtzioa zuen. Harresi oso ahula zen, ez zuen metro bat baino gehiagoko lodiera izango. Elorriokoa, berriz, oso harresi indartsua zen. Aipatu dugun moduan, 1356an hiribildua sortu zenean eraikitakoa, eta defentsarako funtzio argi bategaz. Altuagoa zen, lodiera handiagokoa, eta badakigu almenak zituela. Horrez gainera, datu berri lez, eta liburuan azaltzen dudana bezala, jakina da ere harresiaren ia ate guztiak ate-dorreak zirela.

Bereziki atentzioa deitzen dizute harresiek?

Bai. Batzuek zigiluen bilduma egiten dute, beste batzuek komikiena, nik harresiei eta gazteluei buruzko liburuak egin ditut. Egia esan, gaiaren zale amorratua naiz, 19-20 urte ni-

tuenetik. Harresiei buruz ez ezik, dorretxeei buruz ere idatzi izan dut.

Gure historian paper garrantzitsua bete dutela uste duzu?

Bai. Oso nabarmena. Oinaztarren eta Ganboatarren arteko bando-gerrak erabakitzaileak izan ziren hiribilduak sortzerako orduan, harresitako hiribilduak. Are gehiago, gure herrietako alde zaharrak mugatu izan dituzte. Harresi haien oinordetza da gure herrietako alde zaharren garapen urbanistikoa.

Nola batu duzu informazioa?

Elorriori buruzko bibliografia nahiko eskasa da. Beraz, artxi-boetako informazioagaz osatu dut liburua: Elorrioko udal artxibora, Bizkaiko Foru Aldundiko artxibora, Bizkaiko probintzia-artxibo historikora eta Elorrioko hiri jabetza-erregistroa jo dut. Tokiko historiagileren bategaz eta bertako abadeagaz ere hitz egin dut. Urtebete inguru behar izan dut liburua osatu eta kaleratzeko.

Nevadah | Jokin Alberdi, Pello Baños, Liher Arteaga, Jon Agirre eta Jon Agirrebeitia**> MUSIKA** Aimar Esteban

Nevadah taldeak lehen diskoa argitaratu berri du. Ia bi urtez lanean ibili ondoren, eta hainbat kontzertu eskaini ostean, beraien kanta grabatzeko pausoak suposatzen duena aztertu dute Pello Bañosek eta Jon Agirrebeitiak.

Zer aurkitu daiteke Nevadah-ren disko honetan?

Pello Baños: Gure aurkezpen lana da, orain arte konposatutako kanten aukeraketa bat dago bertan. Estilo aldetik, egiten dugun rock and roll eta blues linea mantentzen duten zazpi kanta daude: taldearen hasieran grabatutako bi kanta bonus track moduan, eta orain grabatu ditugun beste bost.

Jon Agirrebeitia: Hasierako kanta hauek ahaztuta ez gertzeko, nonbait gordeta egotea gura genuen.

Zuzenean daukazuen soinuak diskoan islatzen da?

J. A.: Kontzertuetan daukagun antzerako soinuagaz jarraitu dugu, gitarra doinu garbiak erabiltzen ditugu zuzenean, eta horrela grabatu ditugu.

P. B.: Ez da egon soinuak aldatzeko intentziorik. Nevadah-k soinu konkretu bat izatea gura dugu, ez zuzenean bat eta grabaketan beste bat.

Nola sortu zen CDa kaleratzeko ideia?

P. B.: Prozesu natural bat izan da disko bat grabatzea.

J. A.: Kontzertu nahiko eman ditugu, eta eboluzio prozesuaren parte bat da. Talde moduan ha-



“Talde moduan hazi egin gara, eta diskoa grabatzea aurrerapauso bat da”

Hainbat kontzertu eskaini ostean, Nevadah taldeak bere lehen lana argitaratu berri du

zi egin gara, eta zerbait txukuna egiteko aukera ikusi dugu.

P. B.: Hasi ginenean gure asmoa ez zen kontzertuak egitea dirua irabazteko eta horrela disko bat ateratzea. Orain ikusi dugu momentu ona zela, presiorik gabe.

Nolakoa izan da CDa grabatzeko prozesua? Nogaz egin

duzue lan disko honetan?

P. B.: Hodei Gonzalezegaz Galdakaoko estudioan grabatu dugu. Lehengo bi kanta ere bera gaz grabatu genituen. Prozesu oso erosoak izan da, malgutasuna izan dugu ordutegiekin eta konfiantza handia eskaini digu.

J. A.: Diseinua Amaia Zaitegirena da. Logoa, kamisetak eta kartelak ere diseinatu zizkigun. Oso ondo ulertzen du taldearen arima.

Zuen abestirik gehienak ingelesez dira, baina euskaraz ere badaukazue abestiren bat. Badaukazue euskaraz abesti gehiago egiteko asmorik?

J. A.: Intentzioa beti eduki dugu, baina badaude abesti edo estiloak ingelesagaz gehiago lotzen ditugunak, eta horrela iriten direnak.

P. B.: Guk betidanik entzun ditugu euskaraz abesten duten taldeak, baina guran eragina izan duten taldeek ingelesez abesten dute. Guk horrela ulertzen dugu rock and rolla.

Hizkuntza dela-eta, ezin izan duzue Durangoko Azokan zuen CDa saldu, eta kanpoan postu bat jarri duzue.

P. B.: Zigilurik barik argitaratu

dugunez, azokan egoteko aukera bakarra Musika Zuzenean-eko standean egotea zela esan ziguten, eta beraiekin hitz egin genuen. Izena emateko beharrezko guztia bidali ondoren, azokan aurkeztutako lanen edukiaren %51 euskaraz izan behar dela esan ziguten. Gure abestiak ingelesez izanik, ezin izan dugu azoka barruan diskoa saldu.

J. A.: Arau hori ulertzen dugu, eta oso ondo iruditzen zaigu, baina guztientzat izan beharrek araua dela uste dugu. Luze jo luke eztabaidak, zer den euskal kultura eta zer ez. Kanpoan jarri dugu gure postua, eta oso gustura gaude. Ehundik gora disko saldu ditugu. Gugana etorri diren guztiei eskerrak eman gura dizkiegu. Diskoak zortzi euroan jarraitzen du salgai, hainbat tabernatan. Guri zuzenean eskatuta ere erosi daiteke.

Orain arte emandako kontzertuetatik, ba al dago bereziki gogoratzen duzuen bat bat?

J. A.: Bilboko Antzokian jo genuen kontzertua berezia izan zen, lekuagatik, martitzen bat izan zelako, eta Durangaldetik jende asko joan zelako.

P. B.: Bizkaitik asko ibili gara.

Hurrengo kontzertua Elorrioren joko dugu, hilaren 17an.

Teknologia berriek talde txikiak ezagutzera emateko aukera ematen diete?

P. B.: Dudarik barik. Sare sozialek ematen duten aukera ez zegoen orain dela urte batzuk. Klik batez jende askorengana heldu zaitezke.

J. A.: Guk ere asko erabiltzen ditugu. Norbaitek Nevadah taldeari buruz hitz egiten badizu, zure mugikorrean bilatu deza kezku, eta nortzuk garen eta ze musika egiten dugun ikusi.

Durangaldeko taldeen maila, nolakoa da?

J. A.: Ez dago lehen zegoen mugimendua kontzertuei dagokienez, baina mailarik onena orain dagoela esango nuke. Mockers, Sermonds edo Worth It oso onak dira.

P. B.: 16-18 urte genituenean, mugimendua eta talde gehiago zegoen gazteen artean, eta, agian, igo egingo zen taldeen batez besteko adina. Musika egiteko gogo hori galdu egin da.

J. A.: Irrati komertzialek ere ez dute askorik laguntzen bertako taldeak zabaltzen. Betiko abestietara mugatzen dira.



Nevadah taldekoek Durangoko Azokaren kanpo aldean jarri zuten postua.

> BERTSOLARITZA Itsaso Esteban Beñat Ugartetxea mallabitarra eta Miren Amuriza berriztarra izango dira Durangaldearen ordezkariak abenduaren 17an Bilbon jokatu den Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalean. Joan zen asteburuan Larrabetzun egin zuten azken finalaurrekoa, eta saio horretan lortu zuen Amurizak finalerako txartela. Erabakita dago, beraz, 2016ko Bizkaiko Bertso Txapelketaren finalean jardungo den zortzikotea. Beñat Ugartetxea eta Miren Amurizagaz, Etxahun Lekue, Jone Uria, Ibon Ajuriagojeaskoa, Nerea Ibarazabal, Onintza Enbeita eta Xabat Gallettebeitia arituko dira Bilbo-ko bertso saioan.

Hirugarren sailkatu zen Amuriza azken finalaurrekoan, eta finalean sartzea lortu du

Etxahun Lekue larrabetzuarrak irabazi zuen abenduaren 3an bere herrian jokatu zuten azken finalaurrekoa.

Azkenean, Bilboko finalean kantatzeko aukerarik barik

Miren Amuriza ere sartu da abenduaren 17ko finalean

Beñat Ugartetxea eta Miren Amuriza izango dira Durangaldearen ordezkariak abenduaren 17ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren finalean



Etxahun Lekue larrabetzuarrak irabazi zuen abenduaren 3an bere herrian jokatu zuten azken finalaurrekoa.

geratu dira, beraz, Bizkaiko Bertsolari Txapelketan parte hartu duten Durangaldeko hainbat bertsolari. Altubek, Bizkarrak, Sarriugartek, Romerok eta *Abarkasek* ez dute finaleko zortzikotean sartzeko beste puntu bildu. Txaber Altube eta Aitor

Finaletik kanpo geratu dira azkenean Altube, Bizkarra, Sarriugarte, Romero eta 'Abarkas' bertsolariak

Bizkarra abadiñarrek udaberrian ekin zioten txapelketari, eta Garikoitz Sarriugarte zaldibartarra eta Beñat Romero zornotzarra bezala, udazkeneko kanporaketetan ere jardun dira. Markiñako finalaurrekoan hirugarren sailkatu zen *Abarkas*.

GEURE DURANGALDEA

JOSUNE ARANGUREN

Kultur teknikaria



Obabatik Bilbora, DA!

Duela aste bi Joseba Sarriionandiak espektakuluaren gizarteari zor dion zerga ordaindu du. Atxagari elkarrizketa horretaz galdetu diote Euskadi Irratian asteleheneroko saioan. Besteak beste, Sarriionandia serioegi topatu duela erantzun du Atxagak. Eta kazetariak, erantzun hori argitzekotan edo, umore faltan sumatu duen galdetu dionean, Sarriionandia hitzek poesia falta dutela erantzun du idazleak. Poesia eta ez umorea jarri du, beraz, seriotasunaren kontra horman.

Duela lau urte poesia zer den azaltzen saiatu zen asteasuarran 2012an, Joxe Anjel Arbelaitzek zuzendu zuen *Leku hutsak, hitz beteak* dokumentalean. Argia multimedien dugu dokumental osoa ikusi nahi dugun abaguneetarako eskura. Beste aldearekiko konexioa bilatzean kokatzen duen poesiarren eremu hori. Dokumentalaren gidoia bera kontakizun ederra da: poetaren ibilbide autobiografikoa bidaia biren bitartez azaltzen du. Joanekean, Obabatik Bilbora, idazle izatea erabakitzen du barneko hutsa bete nahian. Bueltakoa, Obaba sorterrirakoa, idazle lana gauzatzea da eta argitalpenen errepasoa eginez narratzen du: joanekean deskubritutako planetaren batean gertatzen dira nobela edo sorkuntza guztiak.

Atxaga parafraseatuz, esango nuke mundua Obaba ez dela eta badela beste mundu bat, eta beste planeta batzuk bilatu beharra sentitzen dugunez, leku hutsak hitzez betetzeko premia dugunez, DA! antolatzaileentzako zorionak eta animorik handiena.

<http://www.josunearanguren.blogspot.com/es/>

Gazteen lehenengo arte lehiaketa, martxan

Durangoko 12-18 urteko ikasleentzako deialdia da

> ARTEA I.E.

Abenduaren 25era arte, Durangoko Museoa aurkeztu daitezke lanak Durangaldeko gazteen lehenengo arte lehiaketan parte hartzeko. Durangoko ikastetxeetako 12 eta 18 urte arteko gazteei dago zuzenduta lehiaketa. Gai eta teknika libreagaz egindako artelanak aurkeztu daitezke lehiaketara, pintura zein eskultura modalitateetan. Lanen gehienezko neurriak eman dituzte antolatzaileek: koadroen neurria 92x73 zenti-

metrokoa izan ahaliko da gehienez, eta eskulturek, asko jota, 0,50 zentimetroko zabalera eta sakonera, eta metro bateko altuera eduki ahaliko dute.

Hiruna sari emango dituzte pintura eta eskultura sailetan. Horiez gain, 10 akzesit eta artelanik orijinalenarentzat sari berezia ere bai. Urtarrilaren 8an emango dute epaia, eta lehiaketara aurkezturiko lan guztiak Ezkurdiko udal aretoan egongo dira ikusgai, abenduaren 30etik urtarrilaren 15era arte.

'Musikofilia' zikloa hasi dute KINE Zineklubean

Musikazaleentzako filmak aukeran, Zornotzan

> ZINEMA I.E.

Abenduaren 6an hasi zuten KINE Zineklubaren 2016ko azken zikloa, Zornotza Aretoa. Janis Joplin abeslariaren inguruko dokumentala eman zuten *Musikofilia* izeneko ziklo berriko lehenengo hitzordu horretan. Musika eta zinemazaleentzat beste bi emanaldi izango dira, datozen martitzenetan, Zineklubaren eskutik.

Abenduaren 13an *Rock the Kasbah* filma emango dute. Musika manager estatubatuar

baten Afganistango ibilerak kontatzen dituen pelikula.

Mercedes Sosa musikari argentinarra izango da Zineklubaren aurtengo azken hitzorduko protagonista. Abenduaren 20an emango dute bere bizitza profesionala eta intimoa ardatz dituen *Mercedes Sosa: La voz de Latinoamérica*.

Mendiaren eta gai sozialen inguruan egin dituzten beste bi zikloenak bezala, 20:00etan hasiko dira datozen bi martitzenetako emanaldiak ere.

¿Cuál es mi nombre?
Date Danza (Granada)

Abenduaren 13an, 19:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustín KULTUR GUINEA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA EGUNEKO MENUA IGANDEETAN MENU BEREZIAK	ABENDUAK 14 19:00etan 365 IPUIN SARI BANAKETA SARI BANAKETA	ABENDUAK 15/30 ZILAR IKASTAROAK	ABENDUAK 16 20:00etan BERTSOZ BERTSO INDARKERIA MATXISTEI AURRE
--	--	--	---



gurearen zaporea



Eusko Labelek marka ziurtatuko: kalitate goreneko eta zapore bikaineko produktuak eskaintzen dizkizu.

gure baserritarrek eta arrantzaleek gure lurraldeko onena ateratzen dute zuretzat. euskadin ekoitzitako, eraldatutako eta/edo landutako nekazaritzako elikagaien produktuak. euskolabel erosita kalitate gorenekoa eskuratzeaz gain, gure ekonomia, gure lehen sektorea, gure paisaia eta gure kultura iraunarazten ere laguntzen duzu. gureak ematen duen gozamena.



Hesian taldeko Zuriñe Hidalgo diskoak sinatzen Durangoko Azokan.



Saguganbarak erreferentzialtasuna irabazi duela adierazi dute.



Irudienean ikusleen kopuruak goranzko joera erakutsi du aurtan ere.

“Ikusle izatetik parte-hartzaile izatera igarotzen ari da bisitaria”

51. Durangoko Azokaren balorazio positiboa egin du Gerediaga Elkarteak

> BALORAZIOA J.D./I.E.

Azoka amaitzeko egun oso bat falta zen arren, martitzen goizean eman zituzten antolatzailerak esku artean zeuzkaten zenbatekoak eta balorazioak. Gerediaga Elkarteko presidente Nerea Mujikak aipatu zuenez, Durangoko Azokak aurtengo edizioaren balorazio positiboa egin du zenbatekoei dagokionez eta, batez ere, nolakotasunari dagokionez.

Bizitzekoa DA izan da aurtengo leloa, eta helburu hori bete egin dela azpimarratu du Mugikak. “Gero eta gehiago, bisitaria ikusle izatetik parte-hartzaile izatera igarotzen ari da. Azoka ez da erakusleihu hutsa, azoka plaza bat da, euskal kulturaren plaza, eta gero eta gehiago gara plaza honetan parte hartzen dugunok: boluntariotza programaren, topaketa ezberdinen edota egitarauko hainbat jarduera parte-hartzailearen bitartez”.

Datuei erreparatuz gero ere, 51. Durangoko Azoka eman-korra izan dela azpimarratu dute. Egun baten faltan, aurre-

ko urteetako bisitari kopurua errepikatu du azokak. Domeka eta martitzena izan dira egunik jendetsuenak. Autobus zerbitzuaren erabilerak ere igoera nabarmena izan du iazko datuekin alderatuz gero.

Azoka apur bat aurreratzearen arrazoietakoa bat Ikasle Eguna mantentzeko erabakia izan zen, eta egun horrek aurtengo edizioan ere erakutsi duen indarra nabarmendu dute antolatzailerak. Helduen tailerrei dagokionez, aurtan esperientzia pilotu gisa antolatu dira, lehenengo aldiz, eta erantzuna gorabeheratsua izan dela azaldu dute. Hurrengo urteari begira, eskaintza findu eta hobetzeko asmoa izango du azokak.

Gunerik gune

Saguganbarako kudeatzaile Itsaso Gangoiak azokako gune guztien balorazioa egin zuen martitzeneko prentsurrekoan. Etxetik abiatu zuen balorazioa. “Saguganbaran umeen sormena programazioaren erdigunean jarri dugu. Horren adibi-

derik argiena *Talentue Plazara* ekimena da”, aipatu du Gangoiak. Azpimarratu duen legez, Saguganbarak erreferentzialtasuna irabazi du familia-plana dutenen artean. “Publiko fidela dugu, eta asko dira Landakotik buelta egin eta Saguganbarara datozenak”.

Ahotsenean 123 proposamen aurkeztu dira, eta publikoak ohi bezala erantzun du. Zuzenekoek kokagune aldaketa izan dute aurtan, eta formatua bera ere moldatu egin da espazio horretara. Solasaldien guneari dagokionez, gero eta ezagunagoa dela nabarmendu gura izan dute.

Kabian komunitateek hartu duten garrantzia nabarmendu dute. Euskarazko eduki digitalen topagune esanguratsua bihurtu dela azaldu dute.

Irudienean ere igarri dute euskarazko ikus-entzunezkoen sortzaileek bertan egon gura dutela. Urteko ekoizpen esanguratsuen lekua bihurtzen ari dela azaldu dute. Azpimarratu dute, ikusle kopuruak goranzko joera erakutsi du aurtan ere.

“Miguel Zugazaren itzulera pozgarria da, beragatik eta baita Arte Ederren Museoagatik ere”

Miguel Zugazak Madrilgo Prado Museotik Bilboko Arte Ederren Museora egingo duen itzulera aztertu dute Mikel Onandiak eta Jose Julian Bakedanok

> ARTEA A.E./J.G.

Miguel Zugazak Madrilgo Prado Museoa utzi eta Bilboko Arte Ederren Museoaren gidaritza hartuko du. Mikel Onandia arte-historialaria da, eta Jose Julian Bakedano zinemagilea Arte Ederren Museoko zuzendariordea izan da. Durangar biek ondo ezagutzen dute Zugaza, eta bientzat albiste ona da haren itzulera. “Berarentzat, Arte Ederren Museoarentzat eta baita Euskal Herriarentzat ere”, dio Bakedanok.

Onandiaren iritziz, “Zugazak sekulako lana egin du Madril. Zailtasun une batean heldu zen, eta museoari egonkortasuna eman zion. Museoa XXI. mendera ekarri du. Modernizatu egin du”. Bakedanorentzat “kudeaketa eta antolamendurako gaitasun handia du Zugazak. Antzina Arte eta Arte Garaikidea sakonean ezagutzen ditu”.

Madrilen egindako lana goraiatu dute askok, eta berak hasitako lanagaz jarraituko duela Bilbon uste dute. “Berak egin zuen museoaren zabalkundea eta obra guztia. Inauguratu berri zenean joan egin zen. Sortu-

tako proiektuari helduko diola uste dut”, adierazi du Onandiak. Arte Ederren Museoan lankide izandako Bakedanoren ustez, “museoa orbitan jartzea gurako du, orain 15 urte abiatutako lanagaz jarraituko du”.



Miguel Zugazak Bilboko Arte Ederren Museoaren gidaritza hartuko du.

Senegalgo kultura ardatz kulturarteko jardunaldian

Durangoko Bibliotekak eta udaleko Immigrazio Sailak antolatu dute gaur hasiko den egitaraua



‘The revolution won’t be televised’ filma emango dute, abenduaren 20an.

> EGITARAUA Itsaso Esteban *Afrika, baina zein Afrika?* izenburuko kulturarteko jardunaldia antolatu dute Durangoko udaleko Immigrazio Sailak eta Bibliotekak, M’Lomp elkartearen eta Umoya Federazioaren babesagaz. Erakusketak, tailer gastronomikoak, ipuin kontalarien saioak eta berbaldiak izango dira, besteak beste, gaurtik abenduaren 22ra bitartean. Abenduaren 12an, *Senegal* jun

país estable? Castas políticas, desigualdades, amenazas y movilizaciones sociales berbaldea eskainiko du Javier Aisa África Imprescindible GKEaren koordinatzaileak, eta abenduaren 15ean, emakume senegaldarren literaturari buruz jardungo da Josune Muñoz filologoa.

The revolution won’t be televised dokumentalaren inguruko zineforumagaz amaituko dute jardunaldia, abenduaren 20an.

Ziklo-kroslarien trebezia neurtuko dute Elorrioko zirkuituko oztopo berriek

Hareazko guneak aldapa behera, enborrak bidean... ibilbidean nobedade dezente izango dira



Gizonetan oraindik erabaki barik dago Espainiako Kopako irabazlea. Maialen Zuazubiskar

> ZIKLO-KROSA Joseba Derteano Zapatuan Elorrioko Udala Saria nazioarteko ziklo-krosaren 41. aldia lehiatuko dute San Joseko Landetan. Aurten hainbat aldaketa egin dizkiote zirkuituari. Parte-hartzaileentzat teknikoagoa eta ikusleentzat ikusgarriagoa izango da, antolatzaileek azaldu dutenez.

Ziklo-kroslariak inoiz baino gehiago erakutsi beharko dute euren trebezia 2.860 metro dituen zirkuituan. 60 metroko luzera duen hareatza da probako

oztopo berrietako bat. “Hareatza hori aldapa behera” igaroko dutela da nobedadea, azaldu du Joseba Gorostiza Elorrioko Txirrindulari Elkarteko antolatzaileak. Oztopoetan egongo den beste aldaketa bat hau da: ohiko oholen ordeiz enborrak jarriko dituzte. Hiru metroko egitura metaliko bat ere eraikiko dute zirkuituko une batean. Txirrindulariak goitik igaroko dira: “Ikusteko oztopo kuriosoa izango da begira daudenentzat”, aipatu du Gorostizak. “Aurten-

goa zirkuitu teknikoagoa da. Indarra ez ezik trebezia handia ere beharko dute partaideek”, adierazi du.

Elorrioren prestatu duten zirkuitua ez da ohikoa, ez Euskal herrian, ez estatuko gainerako probetan. Belgikako eta txirrindularitza kirol nagusienetakoa den tokietako zirkuitu motetara hurreratzeko ahalegina egin dute. “Bizkaiko eta Euskadiko federazioen bidez, hainbat txirrindularik nazioarteko proba batzuetan lehiatzeko aukera

izaten dute urtero, baina, kanpora doazenero, eurentzat erabat ezezagunak diren oztopo eta zirkuitu motei egin behar izaten diete aurre. Ondorioz, ez dituzte landuta oztopo horiek gainditzeko teknikak”, azaldu du Gorostizak. Egoera horiei aurre egiteko bitartekoak eskaini gura dizkiete txirrindulari gazte zein helduei. “Gaur egun Elorrioko eta Abadiñoko probak dira nazioartean dauden antzerako oztopoak dituzten bakarrenetakoa”, segurtatu du.

ORDUTEGIA

- 09:00** Master 40-50-60.
- 10:00** Master 30.
- 11:00** Kadeteak mutiletan eta nesketan.
- 12:00** Mutil juniorrak.
- 13:00** Juniorrak, 23 urtez azpiko eta eliteko neskak.
- 14:00** 23 urtez azpikoak eta eliteko gizonak.

Datorren urteko aldirako, oraindik aldaketa sakonagoa egin gura dute ibilbidean, zirkuituari harbidea gehituta.

Goi mailako parte hartzea
Nazioarteko egutegian —UCI ren C2 maila— zein Espainiako Kopan sartuta dagoen proba da. Kopako zazpi probetatik azken aurrekoa da, eta maila askotan txapeldunak oraindik erabaki barik daude. Gizonetan Ismael Esteban, Aitor Hernandez eta Felipe Orts-en arteko lehia es-tua espero dute. Oraindik hiru-rek dituzte Kopa irabazteko aukerak. Nazioartetik datozen maila ere aipagarria da. Lars Bom munduko txapeldun ohi herbeheretarra etorriko da, besteak beste.

Emakumeetan kontua garbiago dago. Aida Nuno asturiar-rrak orain arteko proba guztiak irabazi ditu. Bere herrikide Alicia eta Lucia Gonzalez ahiz-pak dira Nunoren garaipena ezbaian jarri dezaketen bakar-renetakoa. Nazioarteko izen-n artean, Susane Verhoven nabarmendu daiteke.

“Euskadin lan oso ona egiten ari dira etorkizunera begira”

Felipe Orts valentziarra proba irabazteko faborito nagusienetakoa da.



Felipe Orts (Valentzia, 1995) ziklo-kroseko promesarik handienetakoa da. Espainiako txapeldunak seigarren amaitu du munduko txapelketa. Kopan jaun eta jabe da 23 urtez azpiko mailan, eta elitekoa ere irabazteko aukerak ditu. Iaz Elorrioko proba irabazi zuen, eta aurten ere faborito nagusienetakoa da.

Zer deritzozu Elorrioko probako zirkuituari?
Euskadin eta lokatzezko zirkuituetan valentziar bat lehiatzen

ikusteak arraroa ematen du, baina nire ibilbidean lokatze-tan irabazitako lehen proba Elorriokoa izan zen, iaz. Zirkui-tu hau asko gustatu izan zait beti. Teknikako eta indarreko tarteak oso ondo uztartzen ditu, eta horixe da, hain zuzen, ziklo-kroseko zirkuitu batek behar duena.

Zer iruditzen zaizkizu aurten-go aldaketak?
Oraindik ez ditut ikusi, bai-na hona natorren bakoitzean hobekuntzak egiten dituzte. Europa iparraldeko zirkuituen antza handia du, eta hori ondo dator teknika entrenatzeko.

Hareatzako tarte aldapatsuak ohikoak dira estatu mailan?
Ez, ez dira ohikoak. Ikusi izan ditudanetan ez dute Europa

iparraldekoen antzik. Elorrioren gertutik ezagutzen dute zelakoak diren, eta seguru na-go hangoen antzerakoa izan-go dena. Beste nobedade bat enborrena da. Tabloiak oso gu-txik saltatzen ditu, normalean bizikletatik jaisten dira. Enbo-rrak saltatzeko gehiago anima-tzen dira.

Oraindik koska bat falta zaio, baina, Jon Munitxa etorkizuneko aurkari moduan ikusten duzu?
Bai. Euskadiko federazioa lan handia egiten ari da Jon Muni-txa eta beste txirrindulari gazte askori nazioartean lehiatzeko aukera eskaintzeko. Horrela-koetan asko ikasten da. Valen-tzian ez da hain ohikoa. Euska-din etorkizunera begirako lan ona egiten ari direla uste dut.

“Denbora asko joan da eta urduritasun puntu bat izango dut, baina batez ere gogotsu nago”

Urte eta erdian talde barik egon ostean, Bolivia taldeagaz itzuliko da errepidera Egoitz Garcia atxondarra

► **TXIRRINDULARITZA** J.D.

Gontzal anaiagaz ordu bi eta erdian bizikletan ibili ondoren, Apatako plazan geldialdi bat egin du Egoitz Garciak (Atxondo, 1986). Hamar minutu bete

aurretik badoa berriro Miotatik beste itzuli bat ematera. Etapa berri baten hasieran, ilusioz dabilela dio, eta ahalik eta presatuen egon gura du. Izan ere, urtebete baino gehiago talderik

barik egon ostean, kontinental mailako Bolivia taldeagaz ibiliko da hurrengo denboraldian.

Kontinental mailako talde berriak ez dira beti hasieran ematen dutena. *Urrutiko intxaurrak hamalau gerturatu eta lau* dio esaera zaharrak, eta txirrindulari askok euren azalean pairatu dute hori. Egoitz Garciak esperientzia txar bat izan zuen iaz Arabiar Emirerri Batuetako talde batez. Harrezkero, talderik barik egon da, irailean Bolivia taldeko zuzendari Lale Cubinok deitu zion arte. Normala den moduan, hasieran proiektuagaz errezeloak izan zituen. “Hemengo proiektua zen galdetu eta Boliviakoa zela erantzutean, hasieran apur bat atzera bota ninduen. Neuri gertatutako esperientziak zein beste batzuk gogoratu nituen”, esan du Garciak. Horregatik, proiektu serioa zela segurtatu arte ez zuen baiezkorik eman. “Egia da, baita ere, ezin nintzela egon urte bi lehiatu barik. Bi aukera nituen: proiektu honi baiezkoa eman edo txirrindularitza utzi”, gaineratu du.

Mendira joatea, mendi bizikleta, errepidekoa... Azken ba-

tean, “kirola egitea” izan da urte honetan sasoiari eusteko erabili duen errezeta.

Bolivia kontinental mailako taldea izango da estreinako urtean, baina bigarren denboraldiari begira profesional mailarako saltoa eman gura du.

Hegoamerikako taldea den arren, lasterketarik gehien hemen izango dituzte. Beraz, atxondarrak ez du inora mugitu beharrik izango. Aitzitik, boliviarrak izango dira estatura etorriko direnak hemengo txirrindularitza bertatik bertara ezagutzeko. Kolonbiarrek Nairo Quintana duten moduan, boliviarrak ere euren izarrak hezi gura dituzte.

Garciak ez daki oraindik zehatz zein izango den bere rola taldean. Horretaz berba egiteko hastia badago aurrerago ere. “Baina deitu baditate, oraindik maila badudala uste dutelako da. Gero, Boliviatik zein amateuretatik datozenei laguntzeko nire esperientzia eskaini dezaket”, aipatu du. Modu batera zein bestera, “ilusioz” dagoela dio. “Lasterketak hastean urduritasun puntu bat ere izango dut, denbora asko joan delako, baina batez ere gogotsu nago”.

ADITUAREN TXOKOA

ALFONSO ARROIO

ETBko kirol kazetaria



Dena ez da urre

Izar distiratsuz betetako mundua dela eta urre-bitsetan bizi diren ustea hedatua dago. Aitzitik, badira lanaren truke sosik jaso ez, edo lan egiteagatik ordaindu egiten dutenak. Urteak joan, urteak etorri, hori guztia gertatzen da txirrindularitzaren hiru garren mailan.

Ezgonkortasuna egunero oia da. Mundu iluna da kontinental maila. Txirrindulari gazteek profesioaletara jauzi egiteko duten ilusioaz baliatzen dira asko eta asko. Beraien ametsak aitaren batean zapuzten dituzte bihotz gabeko ugazabek. Kontratu bat sinatu eta profesional izango direla agintzen diete. Amua irentsi eta umetako ametsa beteta dakusate. Profesional moduan lehen pedalkadak eman orduko, orde, amesgaizto bihurtzen zaie. Taldearen inguruan berririk ez. Ziria sartuta, amaitu dute profesioaletako ibilbidea.

Beste batzuei dirua eskatzen diete lekutxo bat egiteko. Ordaindutako kopuruarekin tokia eta soldata daukate. Are gehiago, txirrindulariren batek mantenuaren truke eskaini du bere burua.

Beste batzuei gertatu izan zaie aseguru izan ez eta etxerako bidea hartu behar izatea. Zortea lagun dutenek segurantzazoziala eta soldata daukate. Batzuek hamahiru mila euro gordin urtean, beste batzuek hogeita mila euro. Askorentzat, urrea diamanterearekin. Errealitate gordina Portugalen, Txilen edo Marokon. Ez baita gauza bera maila profesionalera jauzi egitea edo profesioaletara egitea. Urre-bitsetan bizitzea gutxi batzuren esku dago.

Dena irabazita amaitu dezake lehen fasea Ezkurdik

Zapatuan etxean jokatu dute azken partidua

► **FUTBOLA** J.D.

Ezkurdi futbol klubeko emakumeek lehen faseko azken partidua jokatu dute zapatuan, 18:45ean, Durangoko Tabiran. Egiten dutena egiten dutela, fase honetako txapeldun izango dira, lau puntuko aldea ateratzen diotelako Basauriko Kimuak bigarren sailkatuak. Baina, bes-

te lorpen bat dute buruan: lehen fasea partidu denak irabazita amaitzea. Bihar Derio taldea menderatzen badute, bederatzi partidutik bederatzi irabazita igaroko dira igoera fasera. Bere multzoko talderik golegileena da Ezkurdi, 38 golegaz. Horieta 15 Nayade Barrutieta jokalariek sartu ditu.

Lointek taldeak Ziortza Isasi elorriarra fitxatu du

“Kalitate aldetik, gorakada nabarmena da niretzat”

► **TXIRRINDULARITZA** J.D.

Ziortza Isasi (Elorrio, 1995) Lointek taldean arituko da hurrengo denboraldian. Erlojupekoan Euskadiko txapelduna den elorriarraren esanetan, “Lointek taldera batzea, kalitate aldetik, gorakada nabarmena da niretzat”. Talde “handiago” batera batzeak kanpoko lasterketa

gehiago lehitzeko aukera eskainiko diola gaineratu du.

Lointek taldeko arduraduen ustez, “Isasi gaur egun pelotoian aurkitu daitekeen erroddorik onenetakoa da”. Ordekan duen indarra zein gorengo abiadura azpimarratu dituzte Isasiren dohainik handien artean.

Smurfit Kappa
Central Forestal

48 urte
EUSKADIKO PINUDIAK ZAINTZEN

Smurfit Kappa
Nervión

EDERTASUN GIDA



Ana Camarero

Masaje lasaigarriak

Gure estetika zentroan masaje lasaigarri ugari eskaintzen ditugu. Zentzuendako plazerra dira, eta gorputza eta adimena orekatzen laguntzen dute.

Zertan oinarritzen dira?

Kirolerako edo errehabilitaziorako ez diren masajeak dira. Gorputzari lasaitasuna eta atsedena ematea da helburua.

Zelan egiten dira?

Eremu lasai batean burutzen dira, kandlekin, musika lasaigaz eta tenperatu onagaz; horrela, erlaxatu eta momentu on bat disfrutatzeke.

Hainbat masaje eskaintzen ditugu:

- Ayus-Lomi: masaje ayurvedikoa, olio beroekin.
- Pindas: hazi zaku beroekin.
- Piedras: gorputz masajea, harri bolkaniko beroekin, gorputzeko zenbait puntu energetikotan kokatuta.
- Aromaterapia: masajea olio pertsonalizatuekin.
- Baobab: Afrikako arbola batetik ateratako olio bategaz.
- Beste batzuk: zetazko estalkiarena, drainatze linfatikoa...



ILE-APAINDEGIAK



ESTETIKA ZENTROAK



**Profesionalik onenak
zure zerbitzura!**



Iker Salaberriak lau t'erdiko finalerdi bat jokatu du. Argazki press.

Hamabi pilotaririk onenak finalaren bila dabiltza Olazarren

Igor Azpiri elorriarrak jokatu du finalerdi bat

> PILOTA Joseba Derteano Zaldibarko Olazar pilota txapelketa azken txanpan sartu da. Hileetako kanporaketan ostean, hamabi pilotarik binakako edo lau t'erdiko txapelak janzteko aukerak dituzte oraindik. Tartean, Durangaldeko ordezkari bat dago: Igor Azpiri elorriarra.

Azpirik eta Joseba Sarasa nafarrak bikote sendoa osatu zuten final-laurdenetan, eta erraz menderatu zituzten Urbieta eta Aizpuru: 22-9. Partidu erditik aurrera jaun eta jabe izan ziren. Horrela, datorren egunean, abenduaren 15ean, finalerdia jokatu dute Zaldibarren, 21:30etik aurrera. Beñat Urretabizkaia eta Garmendia izango dituzte aurkari. Azken hauek latz sufrituta lortu zuten sailkapena. Emozioz betetako partiduan 22-21 menderatu zituzten Zubizarreta eta

Murgiondo, 19-21 galtzen joan ostean.

Lehenengo finalerdia atzo gauean jokatu zuten. Peru Labaka gipuzkoarrak eta Iñigo Martinez nafarrak Mikel Larrañaga eta Miguel Perez arabarrak izan zituzten aurkari.

Lau t'erdiko finalerdiak abenduaren 15ean eta 22an jokatu dituzte. Lehenengoan, Iker Espinal eta Peio Etxebarria nafarrek neurtuko dituzte indarrak. Espinal da faborito, pilotari eginagoa eta segurua delako, baina Etxebarria sasoian dago. Bigarren finalerdia Iker Salaberria nafarrak eta Adonis Gelis gipuzkoarrak jokatu dute. Salaberriak Euskal Herriko elite mailako txapelketa irabazi zuen joan zen asteburuan, eta faboritoa da. Gelis pilotari segurua eta borrokalaria da.

Sasikoa-Buskantza derbia jokatu dute zapatuan

Elorrioko taldeak ez du partidurik galdu kanpoan

> ARETO FUTBOLA J.D. Areto-futboleko Hirugarren Mailan derbia jokatu dute Sasikoa Durangok eta Elorrioko Buskantzak bihar, 19:00etan, Landako kiroldegian. Sasikoa makal dabil etxean. Partidu bat irabazi eta lau galdu ditu. Buskantza, aldiz, emaitza hobeak lortzen ari da, batez ere etxetik

kanpora, eta oraindik ez du galdu kanpora egindako bisitetan: lau garaipen eta berdinketa bat. Elorrioko taldea hirugarren dago sailkapenean. Azken asteetan Bilbo eta Laskorain aurreneko bien kontrako partidua galdu ditu etxean. Derbia irabaztea moral dosi ona litzateke goialdeko borrokan jarraitzeko.

150 euroko saria Mallabiko frontenis txapelketan

Izen-ematea aste honetatik aurrera egin daiteke

> FRONTENIS J.D. Mallabia areto-futbol taldeak Gabonetako Frontenis Txapelketa antolatuko du 2017ko urtarilaren 9ko zapatuan. Urtero parte-hartzaile asko batzen duen ekimena da, eta dagoeneko hasi dute izen-ematea 669 02 87 18 telefonoan. Txapelketa binaka jokatu dute, eta bikote bakoitzeko 16 euro da izen-ema-

tea. Bazkide direnentzat merkeagoa izango da, eta zortzi euro ordaindu beharko dute. Txapelketa irabazten duen bikoteak 150 euro eta garaikurra eskuratuko ditu. Txapeldu-nordearentzako saria 100 euro eta garaikurra dira. Txapelketatik ateratzen duten dirua kirol elkarteko beharrianak asetzeko erabiliko dute.

Kortazar eta Loizate nagusi Jakaren proban

Durangoko lasterketa durangar bik irabazi dute



Azkorbebeitia, Loizate eta Solar Durangoko podiumean.

> KORRIKA J.D. Martitzen goizean Joseba Jakaren Oroimenezko 14. Lasterketa lehiatu zuten Durangoko kaleetan. Ibilbideak sei kilometro zituen. Gizonetan zein emakumeetan Durangaldeko korrikalariak izan ziren protagonista nagusiak. Elite mailan podiumeko sei postuetatik bost bete zituzten.

Gizonetan Durango Kirol Taldeko Ekaitz Kortazar durangarra izan zen azkarrena: 19.08. Lau segundo atera zizkion Txomin Marañon durangarrari (Durangaldea Running) eta zor-

tzi segundo Aitor Mimenza elorriarrari (DKT). Emakumeetan Irene Loizate durangarrak irabazi zuen: 21.31. Oihana Azkorbebeitia abadiñarra sailkatu zen bigarren (23.03) eta Sonia Solar kantabriarra hirugarren (24.08).

Gaske mailetan ere eskualdeko hainbat korrikalari nabarmendu ziren. Mutiletan Zaldibarko Amine Haissou, Durangoko Gorka Pagonabarraga eta Xabier Etxeandia izan ziren onenak. Juniorretan onenekin aritu ziren Paul Bereziartua durangarra eta Gontzal Murgoitio elorriarra.

AGENDA
> ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA (gizonak)
Durango Nissan Gaurse - El Salvador B · Domekan, 12:30ean, Arripausuetan.
> FUTBOLA
Elorrio - Barakaldo · Domekan, 11:30ean, Eleizalden.
OHOREZKO MAILA (gizonak)
Iurretako - San Pedro · Zapatuan, 17:30ean, Larraozeldian.
Zaldia - Gallarta · Zapatuan, 16:30ean, Solobarrian
MAILA GORENA (gizonak)
Abadiño - Galdakao · Domekan, 11:30ean, Astolan.
LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)
Ezkurdi - Derio · Zapatuan, 18:45ean, Tabiran.
HIRUGARREN MAILA (gizonak)
Kultural B - Elorrio B · Zapatuan, 16:45ean, Tabiran.
Ezkurdi B - Gernika B · Domekan, 17:30ean, Tabiran.
Durango Bikainak - Orduña · Domekan, 15:30ean, Tabiran.
> ARETO-FUTBOLA
HIRUGARREN MAILA (gizonak)
Sasikoa - Elorrioko Buskantza · Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian.
EUSKAL LIGA (gizonak)
Elorrioko Buskantza - Bilbao · Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian.
Mallabia Seguros Altaldi - Atxurre Bakio · Domekan, 18:00etan, Zaldibarko kiroldegian.
MAILA GORENA (gizonak)
Abadiño Gaztetxe - Zamudio · Zapatuan, 17:00etan, Traña-Maillenako kiroldegian.
EMAKUMEEN LIGA
Sasikoa - Beti Gol · Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian.
> SASKIBALOIA
ZILARREZKO LEB LIGA
Zornotza S.T. - Granada · Domekan, 18:00etan, Larrean.
LEHEN ERREGIONALA BEREZIA (gizonak)
Zornotza - Unamuno · Domekan, 20:00etan, Ixerbekoa kiroldegian.
LEHEN ERREGIONALA (gizonak)
Anbotopeko - Salesianos · Zapatuan, 18:00etan, Tabiran.
LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)
Zornotza - Deusto Loiola · Domekan, 16:00etan, Ixerbekoa.
> PILOTA
OLAZAR TXAPELKETA (finalerdiak)
Azpiri - Sarasa / Urretabizkaia - Garmendia · Abenduaren 15ean, 21:30ean. Zaldibarko pilotalekuan.

IDAZKERAZ

Gizakiok irakurtzeko eta idazteko daukagun gaitasunetik eratortzen diren ondorioak ikaragarriak dira, geure besterik ez ditugun gaitasun horien benetako eraginaz gehienetan larregi ohartzen ez garen arren. Baina, egun daukagun idazkerak, ezagutzen dugun eredura iritsi arte bide luze eta aldaketa ugariak izan du, gizakiak bere garapenean zehar izan dituen komunikazio betebeharrak eraginda, besteak beste, etengabe egokitu baitu idazkeraren tipologia historian zehar.

Gehienontzat idazkerarik gabe gelditzea egoera jasangaitz eta gorabehera eramangaitz askoren eragile litzateke. Irakurtzen eta idazten jakitea, bestalde, ez dira berez gizaki bezala ikasita dakartzagun gaitasunak, eta ildo horretatik era artifizialean ikasitako trebetasunak ditugu. Lantzen ez diren heinean hobetzen ez direnak alegia. Beraz, irakurketa- eta idazkera-gaitasunek, ahalegina, diziplina, jarrera eta gogo bizia eskatzen dute barneratzetik haratago gaitasun horiek maila bikain eta jasoan izaterik nahi badugu behintzat. Alfabetatuta gaudenontzako irakurketa- eta idazketa-trebetasunak, berba egiteko edota entzuteko ditugunak bezain “ohiko” ditugu, ikasitakoak ditugun arren. Irakurketak eta idazkerak gure burmuinaren eraketan ondorio zeharo sakonak dituzte eta zenbat eta gehiago irakurri eta idazten dugun, burmuina egoera askoz hobe eta gaituagoan izaten da.

Gizateriaren historian izan dugun aurrerakuntza garrantzitsu eta sakonenetariko bat idazkeraren sorkuntza dugu. Idazkera, orain 5.000 mila urte inguru hiru toki desberdinetan, hau da, Sumerian, Mesopotamian eta Txinan, sortu zen.

Idazkeraren garapen eta hedapena oso azkarra izan da baina, gure mendebaldeko gizartera etorritari, egun idazkera funtsezko giza eskubide bezala aintzat hartu dezakegun arren, gizartearen erabateko alfabetatzea orain urte gutxira arte ez da gauzatu.

Idazkerak historiaren bilakaeran arazo eta eragozpen ugari izan ditu, hizkuntzak idatziz adierazteko era asko izan baitira. Antzinatean izan diren idazkera-ereduak piktogramaz osatutakoak dira eta Mesopotamian aurkeztu diren idazkera-eredurik zaharrenak buztinezkoak ditugu.

Idazkera sortu baino hainbat milaka urte lehenago ahozko hizkuntzarik bazen. Hizketari

dagokionez, ondo adierazia eta emozio eragin sakona izan arren, ez dago inolako lekukotasunik.

Idazkerari dagokionez, az-tarnak daude. Hizketa memoriaren araberakoa da eta, era epikoan edo abesti bidez besterenganatu daitekeen arren, komunikazio modu oso iragankorra da. Antzinatean legeak sortzen zirenean, harriak irriak ziren iraupen luzea izan zezaten. Horrela, zaharrenetarikoa bat, Babiloniako Hammurabi Erregeak Kristo jaio baino XVIII mende lehenago emandako kode ospetsua, granito gogorrean irarrita dago eta idazkera kuneiformez egindakoa da. Idazkera kuneiformeajatorrian buztin hezeko taulatxoetan falaka itxurako alakatutako landare-zurtain baten bitartez idatzia zen. Hammurabiren kodea delituak zehaztu eta zegozkien zigorrak ezartzera zetorren araudi gisa onartua izan zen.

Dena dela, idazkerak ez du zehaztasun osoz hizketaren bitartez adieraztera ematen ditugun xehetasun guztiak azaltzen. Idazkera, hizkuntzaren eremu batzuk bakarrik besterengantzen dituen kodea dugu, zeren, adibidez, ez ditu melodia edota hitzez adierazitako esaldien prosodia edota xehetasun fo-

“Irakurketa- eta idazketa-trebetasunak bizitzan zehar etengabe hobetu eta garatu beharrekoak dira”

nikoa, tonuak eta azentuak islatzen. Idazkerak ez du hitzez adierazitako esaldi baten doinua adierazten. Oro har, ez ditu idazkerak hitzen azentuazio-jarraibideak transmititzen eta, hori dela eta, hitzen esanahia, berdinak izanik esanahi desberdina adieraztera ematen dutenean bereziki, testuinguruak ematen digun informazioa erabiliz atera beharra dago.

Gure kulturen ahots kolpe bakarrez adierazten ditugun fonema bakoitza edota fonema-taldea (silaba) dugu hitzaren zatirik txikiena. Edonola ere, silabak kontsonantez eta bokalez osatutako soinu-atal txikiagoez zati daitezke eta zentzu horretan bokal bakardun silabak izan ditzakegu, kontsonanteen kasuan ez bezala bokalen beharra baitute silabak eratzeke.

Alfabetoaren lehen asmaki-



zun erraldoia kontsonanteentzako sinboloak sortzea izan zen eta zeregin hori Mediterraneo itsasoan zehar antzinatean sakabanatuta izan zen merkataritza-eremu feniziar herriari aitortu behar zaio.

Feniziarrek egiptoar jeroglifikoa ezagun zituzten arren, euren hizkuntzako hizkeraren soinuak garrantzitsuenak adierazi ahal izate asmoz berregin egin zituzten.

Alfabetoari dagokion bigarren asmakizun ikaragarria, bokalentzako zeinu grafikoak sortu izana alegia, grekoei aitortu behar diegu. Bokalak sortu izanak ez zuen alfabetoan zeuden letren kopurua gutxi besterik ugartu eta gertaera hori K.a. 500. urtean gertatu zen.

Ordutik aurrera, alfabeto gero eta hizkuntza gehiagok bereganatu izan dute eta letra-kopuruak, aldiz, ia ez du gehitu beharrik izan.

Erromatarrek letra-kopurua murrizteari ekin zioten, eta alfabetoa buruz adieraztean erabili zuten ordena egun darabilgun berbera izan zen.

Antzinateko Grezia eta Erroman, eskoletan beste ezeren aurretik alfabetoa irakasten zen. Kronika historikoek adierazitakoari jarraituz, Erromatar Inperioaren zerbitzura izan zen Herodes Atico (Maraton 101-Erroma 176) politikaria, erretriko greko aberatsa eta urtean, bere semeak alfabetoa ikasteko zituen memoria txarra

eta bere gaitasun urria ikustean, Atenasen antzokia eraikitzea agindu zuen. Aitak hogeita lau jopu erosi zituen bakoitzari alfabetoko letra baten izena emanaz. Atiko gazteak jopuen izenak ikasiz alfabetoa ere barneratuko zuela uste dugu, horrela bere heziketan funtsezko urratsa emanaz.

“Gaitasun narratibo egokiak dituzten umeak irakurtzen eta idazten azkarrago ikasten dute”

Alfabetoa barneratzea alfabetatzearen lehen urratsa dugu. Alfabeto-sisteman, idazkera errazagoa da zeinu-kopurua urriagoa baita eta guztien artean ispilutanketako letra zital apur batzuk baino ez dira gutxi batzuei eragozpen nahiko sortarazten dizkienak: b, d, p, q.

Gazteen artean, aipatu letra horiek ikasi eta gogoratzeko eragozpen ugari izaten da, ekin ez denboraren joanean ikastea lortzen duten arren. Burmuina, hiru dimentsiotan jarduteko diseinatu dagoenez, paperean bi dimentsiotan irakurketa egitean ahalegin berariazkoa egin beharrean izaten da.

Ondorioz, buruari bi dimentsiotan letrak irakurtzeak eragozpenak eta nahastea sortzen dizkio. Ondo aztertuz, aipatu

lau hizkiak hizki berbera dira, espazioan hiru dimentsiotan mugitzen ikusiz objektu bakarra litzatekeelako. Beraz, haurrek forma horiek lehenengoz ikusten dituztenean, burmuinari larritasuna dakarkie. Gorago aipatu bezala, egun darabilguzan letra-irudien jatorria idazkeraren hasierako aldietan kokatzen da, idazkari feniziar eta grekoek egiptoarren jeroglifikoen irudiak bereganatu eta eraldatu zituzteneko garaian alegia.

Letren irudia, erromatarrek harrian euren inskripzioak egiteko egokienak zeintzuk ziren erabaki zuten garaitik gaur arte, ikaragarri gutxi aldatu da.

Bukatzeke, aipamen bat egin nahi nuke: umeek euren hiztegia eta gaitasun gramatikala hobetzen dituzten heinean, gertaeren inguruko aipamen jarraitua eskaintzeko gero eta gaitasun handiagoa lortzen dute, hau da, istorioak kontatzeko gaitasun hobe dute eta... hizketaren eredu narratibo horrek idazkerarako beharrezkoa den hizkuntza adierazpenerako askatasunarekin zerikusi handia dauka.

Gaitasun narratibo egokiak dituzten umeak, gaitasun horietan maila urriagoa dutenek baino azkarrago ikasten dute irakurtzen edo idazten. Lagun diezaiegun bada bide horretan euren aberastasun intelektuala- rentzat onuragarri baita.

Gorka Aurre

prakagorri@prakagorri.eus

“Berba egin aurretik...oldoztu. Oldoztu baino lehen...irakurri”

Gorka Aurre



Prakagorri
reading skills

Tel.: 944 915 763
prakagorri@prakagorri.es

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1.º ezk. • 48200 DURANGO
Tel.: 946 813 562

ETXEBITZAK ALOKAIKUAN

DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

ETXEBITZAK SALGAI

